

**IKASTETXEETAN BERDINEN ARTEKO  
TRATU TXARRAK GERTATZEN  
DIRENENAN JARDUTEKO GIDA**

## SARRERA

### Zioen azalpena

*Ikastetxeetan berdinaren arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida* argitaratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskaritzak 2004-05 ikasturtean; ikastetxe guztiei helarazi zitzaizkien, eta 2007ko maiatzean aldatu zen lehenengo aldiz.

2008ko abenduan, 201/2008 Dekretua atera zuten, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa. Dekretuaren zioen azalpenean agertzen dira lortu nahi diren xede nagusiak:

*Dekretu berri honen helburua honako hau da: ikasleek beren eskubideak baliatzen eta beren betebeharrak betetzen ikasi behar duten bizikidetza-esparrua arautzea, gizartean eskubide osoko herritar gisa integra daitezen. Alde batetik, bizikidetza positiboki bultzatzean datza, ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuetan gaineratu behar dituzten planekin bat etorritik. Bestetik, aurreko Dekretuan (160/1994) arautu den faltak zuzentzeko prozesua "gizarte- eta hiritar-gaitasuna" eskuratzeko funtsezko tresna bilakatzea lortu nahi da. Aipatu berri dugun gaitasuna, bidenabar, eskolako curriculumek dakarten oinarrizko gaitasunetako bat da. Izan ere, jakina da ikasleek bestelako oinarrizko gaitasunetan hainbat gabezia izan ditzaketela hezkuntza-sistemaren maila batetik bestera igarotzen direnean, eta ikastetxeak gabezia horiek kontuan hartu behar dituela, zuzentzeko. Era berean, jokabide-arloan gabeziak izan ditzakete, eta gabezia horiek helburu berarekin, espiritu berarekin eta, ahal dela, metodo berarekin zuzendu behar dira, hain zuzen ere, jokabide-arloan atzemandako gabeziei modurik egokienean erantzuteko jardueren bitartez.*

Dekretuak aldaketa handiak egin ditu ikasleen eskubideen eta betebeharren alorrean 160/1994 Dekretuari dagokionez. Azken Dekretu hori hartu zenez erreferentzia gisa aurreko **Gida** lantzeko, beharrezkoa da gida aldatzea eta egungo arau-errealitatera egokitzea, 201/2008 Dekretuaren xedeak eta filosofia jaso ditzan, eta bat etor dadin horrek ezartzen dituen aginduen edukiekin eta formarekin.

Dekretuak aipatutako ildo beretik, azken urteotan, azterketa eta ikerketa askok nabarmendu dute alderdi positiboetan oinarritutako ikuspegi batetik landu behar dela bizikidetza. Jarrera hori hartuz gero, bizikidetza positiboa sustatzen duten estrategietan jarri ahal izango dugu arreta, bizikidetza puskatzen deneko egoera larriek eskatzen duten erantzun zehatzean –eta beharrezkoan, beste alde batetik– jarri beharrean. 201/2008 Dekretuak azaltzen duen eran, egoera horietan ere, hau da, adierazpenek eta jokabideek bizikidetza hondatzen dutenetan ere, irakasleek eta gainerako hezkuntza-komunitateak erantzun hezigarri bat eman behar diete egoera horrekin zerikusia dutenei. Ikuspegi hezigarri hori, prebentzioarekin batera, funtsezkoa izango da ikastetxeetatik bizikidetza hondatzen duten jokaerak desagerrarazteko, eta, bereziki, berdinaren arteko jazarpena.

Ikastetxeetako tratu txarren gaia, indarkeriazko jarrera bat den heinean, ez da arazo isolatua eta zehatza; aitzitik, egiturazko erro sakonak dauzka, eta, beraz, ikastetxeetako indarkeriari aurre egiteko, hezkuntza-komunitate osoak ahaleginak egin behar ditu.

Ikastetxeek konpromiso berezia izan behar dute mota guztietako indarkeriaren aurka borroka egiteko; indarkeriazko ekintzen prebentzioa sustatu behar da, bai eta faktore positiboak edo prebentziozkoak ere, eta murriztu edo indargabetu egin behar dira faktore negatiboak. Tratu txarrak gertatzen badira, esku hartu beharko dute beti; ez dute utziko denbora pasatzen, tratu txarrak zigorrik gabe gera daitezkeen. Halaber, proposatu beharko dute zer birsortze-eredu aplikatuko diren tratu txarren bidez hondatutako harremanak konpontzeko; tratu txar horiek kalte egiten diete biktimei, baina baita erasotzaileei eta ikusleei ere.

*Gida* honen moduko bat izateak, aukera ematen digu ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrekin lotutako egoerei aurre egiteko bizkor eta eraginkortasunez, eta ikasleentzat segurua izango den modu batean. Kontuan hartu behar da ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrak ondorio larriak izan ditzakeela ikasleengan epe motzean, ertainean eta luzean; izan ere, horiek beren nortasuna lantzeko prozesu batean daudenez, ahulagoak dira, eta zailtasun gehiago dituzte egoera horiek gainditzeko. Ondorioz, horiek haien helduaroan eragin negatiboa izateko arriskua handiagoa da. Bestalde, ikastetxeetako kasu gehienak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean gertatzen badira ere, beste etapa batzuetako ikasleei eragiten dieten egoerak ere badaude, eta gida hau erabilgarri izan daiteke horrelakoetan ere.

*Gida* egiterakoan kontuan hartu ditugu, baita ere, ikastetxeen eta Hezkuntza Administrazioi eta beste erakunde batzuetako zerbitzuen iradokizunak eta ekarpenak, bai eta egindako ikerketen eta azterketen ekarpenak ere. Ikerketa eta azterketa horien balioespenak bat datoz, neurri handi batean, tratu txarren ezaugarrien inguruan.

Berritu den *Gidak* zuen egitura mantendu da neurri handi batean, hori oraindik baliagarria dela ulertzen dugulako. Berdinen arteko jazarpena hautematen denean egin behar diren txostenak nola erabiliko diren zehazteko ahaleginak egin ditugu, *Gida* honetako dagokien ataletan azaltzen den eran.

*Gida* sinpleago bihurtzen saiatu gara, irakasleei eta zuzendaritza-taldeei lana errazteko, bai eta kanpoko zerbitzuei ere –Hezkuntzako Ikuskaritza eta Berritzeguneetako aholkularitza-zerbitzuak–.

### ***Ziberjazarpena (Ziberbullying)***

*Gida* hau berritzeko beharra eragin du honako beste faktore honek ere: areagotu egin da informazio- eta komunikazio-teknologia berrien bidezko berdinen arteko jazarpena, eta aurre egin behar diogu horri.

“Ikastetxeetan *ziberbullyingari* aurre egiteko jarduera-protokoloa” sortzeko agindua eman zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ikastetxeek jarraibide batzuk izan zitzaizaten mota horretako jazarpenari aurre egiteko.

“Ikastetxeetan *ziberbullyingari* aurre egiteko jarduera-protokoloa” ez da aurkezten dugun *Gida* honen ordezkoa. *Gida* honen osagarri da, eta hori zabaldu nahi du hala behar duten egoeretarako.

### ***Emakumeen kontrako indarkeria eta jazarpen sexista eta sexu-jazarpena***

Eskola-esparruan ere gerta daitezke jazarpen sexista eta sexu-jazarpena. Berriki egindako ikerketen arabera, mutilak eta neskek modu desberdinean hautematen, bizitzen, kudeatzen eta parte hartzen eta esku hartzen dute berdinen arteko tratu txarren esparruko egoeretan.

Funtsezkoa da eskolatik bertatik desagerraraztea hierarkia-/mendekotasun-ereduak eta biktimaren eta erasotzailearen rola, bai eta eredu horiekin lotuta egon daitezkeen egiturazko alderdi eta alderdi sozial sexistak ere.

Ildo horretatik, eskola-esparruan genero-berdintasuna eta hezkidetza sustatzea prebentzio-estrategiatzat jo daiteke, hau da, jazarpen sexista eta genero-indarkeria edo helduaroako beste indarkeria- eta jazarpen-mota batzuez gainera, bullyinga edo ziberbullyinga ere saihesten lagunduko duen estrategiatzat.

Hezkuntza Sailak konpromisoa hartu du emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa lantzeko eta aniztasunean eta emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasunean oinarritutako bizikidetza-ereduak sustatzeko. Konpromiso horri jarraiki, *Gidaren* edizio berri honek sakonkiago aztertzen du jazarpen sexista eta sexuala, eta ikastetxeetan jokabide horiek ekiditeko prebentzio neurriak jasotzen ditu.

## Gidaren zatiak

*Gida* honetan, hiru zati nagusi bereizten dira:

1. Ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarren definizioa (eskola-jazarpena edo *bullyinga*).
2. Ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrei aurre egiteko jarduera-protokoloa.
3. Eranskinak

## Gida zuzentzen duten printzipioak

Honako funtsezko ezaugarri hauek ditu gidak:

- ***Gidak orientazio-izaera dauka, eta protokoloak, berriz, oinarrizkoa/aginduzkoa***

Dokumentu honen xedea da orientagarri izatea ikastetxeetan hauteman daitezkeen berdinen arteko tratu txarren tratamendurako.

Ildo horretatik, *Gidak* oinarrizko jarduera batzuk proposatzen dituela ulertu behar da, ikastetxeek aplikatu eta sakondu ahal izango dituztenak. *Gidak* barne hartzen duen *Jarduera-protokoloan* hala ezartzen direnak soilik izango dira nahitaezkoak.

- ***Tratu txarren inguruko sentsibilizazioa eta gida zabaltzea***

Badakigu helduen begiradetatik urrun gertatu ohi izaten direla tratu txarrekin lotutako jokaerak, eta tratu txarrak pairatzen dituzten ikasleei asko kostatzen zaiela haien sufrimenduaren berri ematea. Horregatik, azpimarratu nahi dugu funtsezkoa dela irakasleak sentsibilizatzea, arreta jar dezaten tratu txarrekin lotutako edozein adierazpenetan.

Zuzendaritza-taldeak ahal den neurri handienez zabaldu behar du gida hau hezkuntza-komunitate osoan, ikastetxeko taldeko aginte-organoen bidez (klostroa, OOG, eskola-kontseilua, bizikidetza-behatokiak...).

- ***Prebentzioaren garrantzia***

*Gidaren VII. eranskinean*, prebentzio-lanak errazteko informazioa jasotzen da, eta Hezkuntza Sailak horretarako sortutako programak eta materialak aipatzen. Horien xede nagusiak dira hezkuntza-komunitatea sentsibilizatzea, parte-hartzea sustatzea, ikasleena batez ere, eta tutoretza-lanak eta ikasleen taldeko eta banakako tratamendua orientatzea.

- ***Esku-hartze koordinatua, zuzendariaren gidaritzapean***

Berdinen arteko tratu txarretan, eta bizikidetza-gatazka guztietan oro har, hezkuntzako langile guztiek modu koordinatuan esku hartzen dutela bermatu behar da, bai ikastetxean (zuzendaritza-taldea, tutorea, orientatzailea, aholkularia, irakasle-taldea, bizikidetza-behatokia, etab.), bai eta ikastetxearen eta familiaren eta kanpoko zerbitzuen artean ere (Berritzegunea, Hezkuntzako Ikuskaritza, osasun-zerbitzuak, udal-zerbitzuak, etab.).

Era berean, hezkuntza-komunitateko edonork tratu txar posibleak hautematen baditu, funtsezkoa da berehala ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraztea.

Zuzendariak zuzenduko du tratu txarretan inplikaturako ikasleei emango zaien tratamendua.

- ***Konfidentzialtasun-beharra eta inplikaturako ikasleak babestea***

Hezkuntza-jarduera guztietan jarraitu behar den konfidentzialtasun-printzipioa betetzea ezinbestekoa dela azpimarratu nahi dugu, horrelako egoeretan bereziki. Zerikusia duten ikasle guztiak babestu behar dira jarduera guztietan, bai ustezko biktimei dagokienez, bai eta ustezko erasotzaileei dagokienez ere.

- ***Larrialdietako esku-hartzeak***

Horrelako egoeretan, biktimaren babesa eta pertsonen eskubideak babesteko berehala hartu beharreko zenbait neurri ere jasotzen ditu *Gidak*, bai eta ikastetxeetan gauzatu beharreko

zenbait jarduera ere, egoera horiek hautemateko, larrialdizko esku-hartze hezigarria gauzatzeko, eta, hala badagokio, beste instantzia batzuetara igortzeko.

• **Sistematizazioa, eraginkortasuna**

Jardueren sistematizazio- eta eraginkortasun-printzipioetan oinarrituko dira ikastetxeek tratu txarrak badagoen aztertzeko abiaraziko dituzten prozedurak, bai eta, halakorik dagoela ikusiz gero, horri erantzuteko gauzatzeko dituzten jarduerak ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak *Ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarrak gertatzen direnean jarduteko gida* honen bertsio berria jartzen du ikastetxeen eskura. Horren xede nagusia da lagungarri izatea irakasleentzat eta zuzendaritza-taldeentzat arazo zail horri aurre egiteko orduan, eta, era berean, errespetuan eta tolerantzian oinarritutako eskola-bizikidetzak egoki bat lortzen laguntzea. Gida hau eskuragarri dago, baita ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web-orrian: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

ISABEL CELAA

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailean

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua

## AURKIBIDEA

### 1. ZATIA: IKASTETXEETAKO BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

Definizioa	7
Berdinen arteko tratu txarren ezaugarriak	8
Tratu txarren beste ezaugarri batzuk	9
Berdinen arteko tratu txarren motak	10
Berdinen arteko tratu txarren ondorioak	11

### 2. ZATIA: JARDUERA-PROTOKOLOA

<b>Esku-hartzearen faseen eskema</b>	13
<b>Esku-hartzearen faseen azalpena</b>	
1. PAUSOA.- Tratu txar izan daitezkeen jokabideak behatzea.	
Tratu txar posibleak jakinaraztea.	14
2. PAUSOA.- Zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari jakinaraztea.	
Hasierako bilera. Protokoloa hasiko den ala ez erabakitzea.	14
3. PAUSOA.- <i>A TXOSTENA</i> . Informazioa biltzea eta aztertzea.	
Larrialdi-neurriak hartzea. Familiei jakinaraztea lehenengo aldiz.	15
4. PAUSOA.- “ <i>A TXOSTENA</i> ” igortzea Hezkuntzako Ikuskaritzari	18
5. PAUSOA.- EZ dago tratu txarren ebidentziarik: hezkuntza-tratamendua, egoeraren arabera	18
6. eta 7. PAUSOAK.- <i>BADAUDE</i> tratu txarren ebidentziak: prozedura espezifikoa eta <i>B TXOSTENA</i> lantzea.	19
8. PAUSOA.- <i>B TXOSTENA</i> igortzea Hezkuntzako Ikuskaritzari	22
9. PAUSOA.- Beste instantzia batzuei jakinaraztea, hala komeni bada	22
10.- PAUSOA.- Kasua amaitzea.	22

### 3. ZATIA: ERANSKINAK

0 eranskina: Familiarekin bileraren akta	24
I. eranskina: Akta	25
II. eranskina: <i>A txostena</i>	26
III. eranskina: <i>B txostena</i> (Lehen Hezkuntza)	31
III. eranskina: <i>B txostena</i> (Bigarren Hezkuntza eta, ohiz kanpoko egoeretan, Lehen Hezkuntzan)	34
IV eranskina: Tratu txarren beste ezaugarri batzuk	37
V. eranskina: Ciberbullyinga	43
VI. eranskina: Jarduera plana lantzeko orientabideak	44
VII. eranskina: Tratu txarren tratamendurako prebentzio-neurriak	49
Bibliografia	54

# 1. ZATIA: IKASTETXEETAKO BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

Ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrei dagokionez, funtsezkoa da horiek berehala hautematea, eta dagokien tratamendua ezartzea; izan ere, zenbat eta azkarrago hauteman, orduan eta aukera gehiago izango ditugu arazoa konpontzeko.

Berehala  
hautemateko  
eta erantzun  
emateko  
beharra

Horretarako, garbi zehaztu behar da zer diren ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrak, eta zuzendu beharreko beste jokaera zehatz batzuek bereizi behar ditugu, horiei ere erantzun egoki bat eman behar bazaie ere, sarritan tratamendu desberdin bat behar izaten dutelako. Arloko adituekin landu ditugu jarraian tratu txarrekin lotzen ditugun definizioa eta ezaugarriak, eta, beraz, oinarritzko erreferente teoriko dira indarkeriazko jokaera edo jokaera desegoki jakin bat ikastetxeko berdinen arteko tratu txar den zehazteko.

Garrantzitsua  
da tratu  
txarrak  
zehazki  
definitzea

## Definizioa

*Ikasle bat eraso da edo biktima bihurtzen da beste ikasle batek edo batzuek gauzatutako ekintza negatiboak pairatzen dituen behin eta berriro eta denbora jakin batean zehar (Olweus, 1998).*

Adituak bat datoz ikasleen arteko tratu txarrek honako ezaugarri espezifiko hau dutela aipatzean: *behin eta berriro gertatzen da, eta denboran zehar mantentzen, helduen begiradetatik urruti, eta biktima babesgabe bat umiliatzeko eta abusuz menderatzeko asmoz (Aviles, 2006).*

Eskola-jazarpena ez da nahastu behar elkarrekintza zakarreko edo bizikidetzat hondatzen duten beste egoera batzuekin (borrokak, txantxak, noizbehinkako eztabaidak, eskola-bandalismoa, banden arteko liskarrak, etab.). Indarkeriazko jokaerak –horien artean daude berdinen arteko tratu txarrak– ez dira nahastu behar, ezta ere, beste jokaera aztoratzaile batzuekin. Horiek gatazkari, diziplinarik ezari, disrupzioari edo ikasketekiko interes ezari egin diezaiokete erreferentzia, eta, eskola-bizikidetzan eta taldeko irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuan arazoak sortzen badituzte ere, ez dakarte nahitaez indarkeriarik, fokalizaziorik, errepikapenik eta biktimizaziorik (Aviles, 2006).

Tratu txarrak  
ez dira  
nahastu  
behar beste  
jarrera eta  
jokabide  
batzuekin

## Berdinen arteko tratu txarren ezaugarriak

Honako ezaugarri hauek dituzte berdinen arteko tratu txarrek:

- **Botere-desoreka.** Botere fisiko, psikologiko eta sozial desberdina sortzen da, eta horrek indar-desoreka eragiten du pertsonen arteko harremanetan.
- **Intentzionalitatea/errepikapena.** Denboran zehar errepikatzen den indarkeriazko ekintza batean adierazten da intentzionalitatea, eta etorkizunean beste eraso batzuk jasoko dituela pentsarazten dio horrek biktimari.
- **Babesik eza/pertsonalizazioa.** Ikasle bakar bat izan ohi da tratu txarren biktima, eta, beraz, egoera babesgabe batean jartzen da hori. Horrela, biktimak ez dauka defendatzeko modurik, eta isolamendua eta estigmatizazioa pairatzen ditu, eta autoestimua eta izen ona galtzen.

Tratu txarrekin lotutako hiru ezaugarriak

Aipatutako ezaugarri horietatik abiatuta, kontuan hartu behar dira jarraian azalduko ditugun bi gai osagarriak tratu txarren ezaugarriak zehazterakoan eta beste jokaera batzuegandik bereizterakoan.

a) Lehenengoak adierazten du *batzuetan tratu txarrik badagoen zehaztea erraza bada ere, beste batzuetan zaila dela horiek bereiztea tratu txarrik ez diren beste jokaera batzuegandik, eta zaila dela horiek zehaztasunez definitzea*. Ondorioz, sakonkiago aztertu behar dugu zein diren tratu txarren funtsezko ezaugarriak.

Tratu txarren ezaugarriak sakonkiago aztertu behar dira

Literatura zientifikoak tratu txarren honako ezaugarri hauek nabarmentzen ditu: beste pertsona bati kalte eragiteko asmoa duen jokaera bat egotea, pertsona hori bere kasa defendatzeko gai ez izatea, eta eraso errepikatzea behin eta berriro. Ikerketen arabera, tratu txarrik badagoen edo ez erabakitzerakoan, ez da garrantzitsua erasoak zer bitartekoren bidez gertatzen diren (tratu txar fisikoak, ahozkoak, bazterketa, ziberjazarpena, etab.), tratu txar horiek zuzeneko eta zeharkako moduetan gauza daitezkeelako.

Batzuetan, tratu txarrekin lotutako jokaera batzuk ager daitezke, baina beste batzuk ez. Adibidez, ikasle batek beste bati erasotzen dio horri kalte egiteko asmoz, baina bigarren hori bere kasa defendatzeko gai da; horrek indarberdintasuna adierazten du, eta, hasiera batean, ez litzateke tratu txarren esparruko egoera bat izango. Adibide horrek erakusten du tratu txarrekin lotutako jokaera batzuk izateak ez duela esan nahi nahitaez tratu txarrik dagoenik. Izan ere, pertsonen arteko indarkeria bat dator eskola-jazarpenarekin biek ezarpena, asmoa, kaltea eta perbertsio soziala dakartelako, baina desberdintasun batzuk ere badituzte, hain zuzen ere, errepikapenarekin, bi alderdien arteko harremanarekin, erasoak fokalizatzearekin eta botere-desorekarekin lotutakoak, azken horiek eskola-jazarpenaren ezaugarri baitira soilik (Aviles, 2006). Beraz, indarkeriazko jokaera guztiak ez dira *bullying* edo berdinen arteko tratu txar.

Tratu txarren ezaugarri batzuk agertzeak ez du esan nahi tratu txarrik daudenik

Ikerketa eta ikerlari ugari nabarmentzen dute eraso maiztasuna funtsezko faktore dela tratu txarrik badagoen edo ez zehazteko; hori adierazten dute, adibidez, ISEI-IVEIk EAEn aldizka egiten dituen ikerketek<sup>1</sup>. Izan ere, errepikapena eta maiztasuna funtsezkoak dira tratu txarrik definitzerakoan.

Maiztasuna eta errepikapena funtsezkoak dira

Orain arte esandako guztiari jarraiki, ikuspegi orokor batetik ezaugarri guztiak bete behar badira ere, globalki aztertu behar da egoera bakoitza zer baldintzatan gertatzen den, arazoak zer ondorio dakartzan zerikusia duten pertsonentzat, eta zer bilakaera duen denboran zehar; horrela, modu eztabaidaezinean eta arrazoituan zehaztu ahal izango dugu tratu txarrik badagoen edo ez.

Globalki aztertu behar dira egoera bakoitzaren ezaugarriak

<sup>1</sup> ISEI-IVEIren orrian (<http://www.isei-ivei.net/eusk/indexeusk.htm>) eskuragarri dauden ikerketa horiez gainera, maiztasuna garrantzitsua dela erakusten dute Arartekoaren 2000 TXOSTENAREN azterketa berrian eta eguneratzean jasotzen diren ikerketa batzuek.

<sup>2</sup> Erreferentzia gisa hartu dira Arartekoaren azkeneko azterketa, "Estudio violencia escolar: el maltrato entre iguales en la educación secundaria obligatoria 1999-2006" izenekoa, eta ISEI-IVEIk tratu txarren gainean egindako TXOSTENAK.



b) Hona hemen kontuan hartu beharreko bigarren gaia: *tratu txarren berezko ezaugarriak proportzio desberdinetan konbinatzen dira egoera bakoitzean, eta, horren arabera, egoera batzuk larriagoak dira beste batzuk baino.*

Tratu txar guztiek ez dute larritasun-maila bera

Literatura zientifikoa bat dator egiaztapen praktiko horrekin; baieztapen horretan, noizbehinkako tratu txarrak eta tratu txar larriak bereizten dira (A. Serrano et Alt. 2005; S. Ramirez, 2006). Horrela, batzuetan, hasiera batean *berez arintzat jotzen diren jokaera batzuek kalte larria eragin dezakete osotasun moralean behin eta berriro, modu sistematikoan eta ohituraz gauzatzen badira* (Estatuko fiskal nagusia, 2005).

Hain zuzen ere, ikasleei tratu txarrei buruzko galderak egiten dizkieten deskripzio-azterketa gehienetan, horien ehuneko handi batek adierazten du eraso fisiko, ahozko edo psikologikoren bat pairatu duela gutxienez behin.

Hori horrela, tratu txarrei buruzko ikerketa zorrotzenek ikasleei egin beharreko galderak zehaztu dituzte. Adibidez, "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskola-bizikidetzari buruzko estatuko azterketa. Emaizten aurrerapena" (2008) azterketaren baitan ikasleei ematen zaien galdera-sortan, aurrez azaltzen zaie zer den jazarpena.

Tratu txarren egoeretan, bestalde, jazarpenaren larritasun-maila aztertu behar da, garrantzitsua izango baita aurrerago ikusiko ditugun beste gai batzuetarako. Larritasun-maila hori zehazteko, tratu txarren berezko ezaugarrietara jo behar dugu berriz ere, bai eta horien intentsitatea eta maiztasuna aztertu ere.

Tratu txarren larritasun-maila ezartzeak duen eragina

Kontuan hartu behar da ikastetxeetan bertan konpon daitezkeela, irakasleen esku-hartzearekin, tratu txarrekin lotutako larritasun txikiko jokaera batzuk, hala nola, ahozko erasoak. Mota horretako jokaerak denbora laburrez agertzen dira, irakasleen esku-hartzea eragiten dute, eta agertu ziren bezain bizkor desagertzen dira. Ez dute ondorio iraunkorrik eragiten, mota larrienerako tratu txarretatik urrun daudelako. 201/2008 Dekretuaren 50.1 artikuluari jarraiki, irakasleek konponduko dituzte intentsitate baxuko jokabide horiek.

Tratu txarren larritasun txikienerako adierazpenak eta horiek zuzentzea

201/2008 Dekretuko 30.2, 31.2 eta 32.2 artikuluei jarraiki, bizikidetzarako desegoki, kaltegarri edo oso kaltegarri diren jokabideen adibide zehatzak aipatu ahal izango dituzte ikastetxeek Antolamendu eta Jarduera Araudietan (AJA) edo Barne Araudietan (BA). Beste batzuen artean, berdinen arteko tratu txarren esparruko jokabideen adibideak ere zehaztu ahal izango dituzte.

Aurrez esandakoa osatzeko, 201/2008 Dekretuaren 41. artikulua zehazten ditu zuzenketa-neurrien proportzionaltasuna bermatzeko irizpideak, bai eta erantzukizuna murrizten edo areagotzen duten egoerak ere, neurri horiek aplikatu behar direnetarako.

Baliteke Haur Hezkuntzako irakasleek tratu txarrekin lotutako jokabideak eta jarrerak ikustea noizbehinka, baina, dirudienez, ez da posible adin horietan tratu txarren funtsezko ezaugarri guztiak batera gertatzea. Hala eta guztiz ere, modu hezigarrian landu behar dira ikasgelan jarrera eta jokabide horiek, denborarekin tratu txar bihur daitezkeelako.

Tratu txarrak Haur Hezkuntzan

## Tratu txarren beste ezaugarri batzuk

Berdinen arteko tratu txarren ezaugarriak sakonki aztertzeke, horien gaineko azterketetara eta ikerketetara jo behar dugu. Azterketa horietatik<sup>2</sup> ondorioztatzen diren deskribapenetan aurki ditzakegu horiek deskribatzeko gakoak, lau esparrutan banatuta.

Tratu txarren beste ezaugarri batzuk lagungarri izan daitezke horiek hautemateko

Esparru bakoitzean, alderdi garrantzitsuenak azpimarratzen dira.

- Mota desberdinetako tratu txarren maiztasunak.

*Ahozko tratu txarrak, ohikoenak eta larritasun txikienekoak izan ohi direnak.*

eta horiei  
modu  
hezigarrian  
aurre egiteko

- Tratu txarrak non gauzatzen diren.

*Ikasgelan eta jolastokian gauzatu ohi dira tratu txarrak. Irakasleak aurrean ez daudenean gauzatu ohi dituzte ikasleek.*

- Berdinen arteko tratu txarretan inplikaturik dauden pertsonen ezaugarriak.

*Mutirik gehiago parte hartzen dute.*

*Gehiagotan sortzen dira Lehen Hezkuntzan Bigarren Hezkuntzan baino. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, lehenengo urteetan gertatzen dira gehiago.*

*Funtsean, ikasgelako ikasleak dira jazarle.*

- Erasotzaileen eta erasotutako izan direnen jokabideak.

*Gida honen IV. eranskinean jasotzen dira aipatutako lau esparru horiek zehazteko elementuak.*

## **Berdinen arteko tratu txarren motak**

Zenbait modutan adieraz daitezke berdinen arteko tratu txarrak.

### **• Bazterketa eta marjinazio soziala**

- Norbait bazter uztea (pasiboa).
- Ez uztea parte hartzen (aktiboa).
- Sexuagatik, arrazagatik, minusbalotasunagatik eta abarregatik diskriminatzea.

### **• Ahozko eraso**

- Norbait iraintzea (zuzena).
- Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa).
- Goitizena jartzea (mistoa).

### **• Zeharkako eraso fisikoa**

- Norbaiti gauzak ezkutatzea.
- Norbaiti gauzak puskatzea.
- Norbaiti gauzak lapurtzea.

### **• Eraso fisiko zuzena**

- Norbaiti jotzea.

### **• Larderia/xantaia/mehatxua**

- Norbait mehatxatzea beldurrarazteko.
- Gauzak egitera behartzea.
- Armekin mehatxatzea.

### **• Sexu-jazarpena edo -abusua eta/edo jazarpen sexista**

- Sexualki jazartzea edo beldurtzea.
- Sexu-abusua gauzatzea.

– Inor modu sexistan beldurtzea, beheratzea, umiliatzea, mintzea edo zirikatzea.

• **Ziberjazarpena**

– Telefono mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen, txataren eta abarren bidez mezuak bidaltzea norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo horri iseka egiteko.

– Grabazioak egitea mugikorrarekin egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexing), eta gainerako mutilei eta/edo neskei helaraztea edo Interneten esekitzea.

Biktimaren ezaugarrien arabera, tratu txarren adierazpen espezifikoak egon daitezke: arrazista, homofoboa, sexista, ahalmen-urritasuna duen ikasle bati zuzendutakoa, etab.

## **Berdinen arteko tratu txarren ondorioak**

• **Biktimarentzat:** hainbat arazo sor ditzake, hala nola, eskola-porrota, trauma psikologikoa, arrisku fisikoa, asebetetze-eza, herstura, zorientasun-eza, nortasun-arazoak eta norbanakoaren garapen orekaturako arriskua. Jazarpen sexuala eta sexista bada, biktimaren rola barneratzea ekar dezake.

• **Erasotzailearentzat:** etorkizuneko delitu-jokabide baten aurrekari izan daiteke, boterea erasoaren bidez lortzen dela pentsaraz dakioke, hierarkia-mendekotasun ereduan oinarritutako harremanak barneratzea eragin dezake, baita helduaroan zehar ere, eta indarkeriazko gertakariak sozialki onartuta eta sarituta daudela ere pentsa dezake.

Jazarpen sexistari dagokionez, ikerketa batzuek adierazi dute erasotzaile-rola hartu izateak helduaroan indarkeria matxista eta tratu txarrak gauzatzea ekar dezakeela.


• **Kide ikusleentzat:** bidegabekeriarekiko eta berdintasun-ezarekiko jarrera pasiboa eta adeitsua sor dezake, eta norbanakoen balioa eta harreman positiboak modu desegokian balioestea eragin.

Ikasle guztiei eta ikastetxe osoari eragiten diete tratu txarren ondorioek

## 2. ZATIA: JARDUERA-PROTOKOLOA

<p>Ikastetxeetako berdinen arteko tratu txarrei aurre egiteko <i>jarduera-protokoloa</i> oinarrizkoa eta aginduzkoa da, ikastetxe bakoitzak hori egokitu edo zabaldu egin badezake ere egoera bakoitzeko testuinguruaren edo berezitasunen arabera.</p>	Protokoloa oinarrizkoa da
<p>Ikastetxeak berdinen arteko tratu txarren esparruko jokabideren bat ikusten duen guztietan hasiko da protokoloa, bai eta ikasleren batek bere edo kideren baten kontrako balizko tratu txarren egoera bat dagoela adierazten duenean, edo ikasle baten familiak edo legezko tutoreek adierazten dutenean ere.</p>	Noiz hasi behar da protokoloa?
<p>Era berean, honako egoera hauetan hasiko da protokoloa:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Polizia- edo epai-salaketa jarri dela edo Arartekoari kexua aurkeztu zaiola jakinez gero.</li><li>- Hezkuntzako Ikuskaritzak hala eskatzen badu.</li></ul>	
<p>Kanpoko salaketarik ez badago ikastetxeak ez du protokoloa hasi beharrik izango, datuetan eta frogetan oinarrituta uste badu jokabideak ez direla larriak, eta horiek konpondu ahal izango dituela 201/2008 Dekretuaren II. kapituluari jasotzen diren jokabide desegokiak konpontzeko neurrien bidez. Ikastetxeak mota horretako neurriren bat hartzen badu jokabide desegokiaren bat dagoelako, I. Eranskinean idatzita geratuko da hori.</p>	
<p>Beraz, zein dira protokoloa hasteko beharrik ezartzen ez duten jokabideak? Tratu txarrekin lotutako larritasun txikiko jokabideak, denbora laburrez agertu ohi direnak, irakasleen esku-hartzea eragiten dutenak, eta agertu ziren bezain bizkor desagertzen direnak. Ez dute ondorio iraunkorrik eragiten, mota larrieneko tratu txarretatik urrun daudelako.</p>	Jokabideak larritasun txikikoak badira, ez dago protokoloa hasi beharrik
<p>Alabaina, jokabideek ondorio garrantzitsuak badituzte ikasleentzat, edo ezin badugu ziur jakin zer irismen izango duten, ikastetxeak aipatutako protokolo hori hasi beharko du nahitaez.</p>	
<p>Hasiera batean protokoloa ez hastea erabakitzen bada ere, gerora erabaki hori aldatu ahal izango da egoerak okerrera egin duela adierazten badute datuek.</p>	
<p>Jarduera-protokoloaren xedea da ikastetxeetako irakasleek eta gainerako hezkuntza-komunitateak jakitea nola jardun behar duten ikastetxeetako balizko tratu txarren aurrean.</p>	
<p>Protokolo honek zuzentzen du esku-hartzea, sarreran azaltzen diren honako printzipio gidari hauen arabera gauzatuko dena: tratu txarren gaineko sentsibilizazioa, prebentzioa, konfidentziasuna eta zerikusia duten ikasleen babesa, esku-hartze koordinatua, zuzendariaren gidaritzapekoa, sistematizazioa, eraginkortasuna eta premia, bai zerikusia duten ikasleekiko, bai eta horien familiekiko ere.</p>	
<p>Jarduera-protokoloaren bidez bizikidetzaren positiboa sustatu nahi da. Horrela, tratu txarrei –bizikidetzaren haustura direla kontuan hartuta– emango zaien erantzuna bat etorriko da beti 201/2008 Dekretuak ezarritako hezkuntza-xedearekin, eta ikaskuntza ekarriko du eskola-komunitate osoarentzat, etorkizunean berdinen arteko tratu txarrak sortzea eragoziko duten balioen arabera bizitzen ikasten lagunduko diguna.</p>	Protokoloa eta bizikidetzaren positiboa sustatzea

## ESKU-HARTZEAREN FASEEN ESKEMA



\* Salbuespen gisa, ikaslearen jokabidea ikastetxeko bizikidetzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori ikaslearentzat edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideentzat arriskutsua bada, zuzendariak ohiko prozedura erabili eta dekretu honetan jokabide horiek zuzentzeko ezarri diren neurriak aplikatu ahal izango ditu; betiere, aurrez jakinarazpena igorri beharko dio Hezkuntzako Ikuskaritzari (201/2008 Dekretuko 29.3 artikulua).

## **Esku-hartzearen faseen azalpena**

### **1. PAUSOA.- Tratu txar izan daitezkeen jokabideak behatzea. Tratu txar posibleak jakinaraztea.**

Eskola-esparruan, lehenengo pausoa ematen da irakasle-taldeko kide batek berdinen arteko tratu txarren esparrukoak izan daitezkeen jokabideak eta jarrerak ikusten dituenean.

Berdinen arteko tratu txarrei buruzko azterketa eta ikerketa guztiek adierazten dute jokabide horiek ez direla zuzenean helduen begi-bistan egiten, eta biktinek ere ez dietela familiei edo irakasleei jakinarazten; zeharkako bitartekoen bidez jaso behar dira seinaleak. Horregatik, irakasleek, tutoreek eta aholkulari-orientatzaileek batez ere, sentsibilizatuta egon behar dute arazo horren inguruan, eta ongi jakin behar dute zein diren tratu txarren ezaugarriak eta adierazpenak, gida honen 1. ZATIAN jasotakoak.

Irakasleek berdinen arteko tratu txarren esparrukoak izan daitezkeen jokabide bat ikusten dutenerako, pentsa dezakegu egoera aspaldi hasita egongo dela. Oro har, ikus ditzakegun kanpoko seinaleak (irainak, erasoak, etab.) icebergaren punta besterik ez dira. Pertsona erasotzaileek ongi dakite non eta noiz eraso behar dituzten biktimak, eta badakite hori isilik geldituko dela, eta jazarpenarekin jarraitu ahal izango dutela. Horregatik, mota horretako adierazpenetan arreta jartzeaz gainera, arreta jarri behar da ikasleren batek jarrera aldatzen badu (umore-aldaketak, tristezia, somatizazioa, bakardadea, uzkurtasuna, hezkuntza-errendimendua murriztea, ohiz kanpoko eskola-absentismoa), eta mota horretako jokabideak pairatzen egon daitekeela susmatzen badugu. Baliteke jokabide-aldaketa hori izatea tratu txarrak hautemateko aztarna hoberena.

Irakasle batek tratu txarrekin lotzen dituen jokabideak edo aztarnak ikusten baditu ohiko jarduera batean, lankideei jakinarazi beharko die, guztien artean erabaki ahal izateko egindako behaketek (jolastokia, ikasgela, jangela, korridoreak, ikastetxetik kanpo, elkarrizketak, beste ikerketa batzuk, etab.) jazarpena dagoela adierazten ote duten.

Jokabide horiek ikusi dituen irakasleak garbi ez badaki tratu txarrekin lotuta dauden edo ez, laguntza eskatuko die esperientzia handiagoa duten irakasleei, orientatzaile aholkulariari edo zuzendaritza-taldeko kideren bati.

Hasierako usteak baieztatzen badira, zuzendaritza-taldeari jakinaraziko zaio.

Tratu txarrak ez dira zuzenean behatzen normalean. Horregatik, sentsibilizazioa funtsezkoa da

Zer jokabideetan jarri behar dute arreta berezia irakasleek?

Oso garrantzitsua da gainerako irakasleei jakinaraztea

### **2. PAUSOA.- Zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari jakinaraztea. Hasierako bilera. Protokoloa hasiko den ala ez erabakitzea.**

Hurrengo pausoa da behaketak egin dituen edo informazioa jaso duen irakasleak horren berri ematea zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari.

Beste batzuetan, zuzendaritza-taldeak berak jasoko du tratu txarren esparruko balizko egoera bati buruzko informazioa beste iturri batzuetatik. Iturri horiek barnekoak –ikastetxeko ikasleak, familiak, administrazioko eta zerbitzuetako langileak– edo kanpokoak –Fiskaltza, epaitegiak, polizia, Ikuskaritza, etab.– izan daitezke.

Ikasle baten familiak zuzendaritza taldeari bere seme-alabarekiko berdinen arteko tratu txarren balizko kasua jakinaraziz gero, batzar horren akta jaso eta bertan familiak gertatukoaren deskribapena islatuko da. Akta horrek zuzendaritzak ustezko biktimaren ziurtasuna bermatuko dituzten behin behineko neurriak ere jasoko ditu. Akta hori familiak eta zuzendaritzak sinatu

ondoren familiari kopia bat eman beharko diote. Aktaren eredua 0. ERANSKINEan eskura daiteke.

*2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, Hezkuntzari buruzkoak, eta 3/2008 Legeak, ekainaren 13koak, Euskal Eskola Publikoaren Legea aldatzen duenak, ezartzen dute zuzendaria izango dela ikastetxeko bizikidetzaren arduradun nagusi, eta bizikidetzaren bermatzeko eta beharrezko zuzenketa-neurriak aplikatzeko erantzukizuna duela. 201/2008 Dekretuan azaltzen dira esku-hartze horren ezaugarriak. Zuzendariak koordinatu behar du esku hartzeko prozesu osoa, eta hori hezigarria dela eta esku-hartzeak legezkoak direla bermatu beharko du.*

Hezkuntzako  
Lege  
Organikoak  
funtsezko  
papera ematen  
dio  
zuzendariari  
bizikidetzaren  
kudeaketaren  
alorrean

Behin zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari jakinarazitakoan, zuzendariak lehenengo bilera batera deituko ditu tutorea edo tutoreak, aholkularia edo orientatzailea, eta, beharrezkoa bada, baita inplikaturako ikasleen beste irakasle batzuk ere. Jazarpen sexista edo sexu-jazarpena denaren aztarnarik badago, komenigarria da generoaren, hezkidetzaren eta/edo genero-indarkeriaren prebentzioaren esparruan prestakuntza duten pertsonak egotea bileran, bai eta eskola-kontseiluan gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko hezkuntza-neurriak hartzeaz arduratzen den pertsona ere.

Lehenengo  
bilera

Bileran, zer esku-hartze behar den aztertuko eta balioetsiko da tratu txarrik badagoen edo ez dagoen zehaztuko duen informazioa biltzeko. Gainera Protokoloa hastea edo ez hastea erabakiko da.

Idatziz jasota geratuko da dagokion aktan zer pertsonak hartu duten parte bileran, zer gertakari buruz hitz egin duten eta zer akordio adostu dituzten; informazioaren konfidentzialtasuna bermatu beharko da *I. eranskinean* jaso da aktaren eredua.

Zuzendariak  
xehetasun  
guztien berri  
emango dio  
ikuskatzaileari  
bileran

Lehenengo bilera horren berri emango dio zuzendariak Hezkuntzako Ikuskaritzari bilera egiten den egun berean.

Hasiera batean protokoloa ez hastea erabakitzen bada ere, gerora erabaki hori aldatu ahal izango da egoerak okerrera egin duela adierazten badute datuek.

Protokoloa hasi egingo da, behin informazioa bildutakoan eta aztertutakoan tratu txarrik ez dela egon ondorioztatzen bada ere.

Ez badakigu garbi behatutako jokabideak tratu txarrekin lotuta dauden edo ez, zuzendariak laguntza eskatuko dio tokiko Berritzeguneari edo Hezkuntzako Ikuskaritzari, zer jarduera gauzatu behar diren jakiteko.

*Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bilera egiten den egunera arte.* Ondorio horietarako, eskola-eguntzat joko dira egun balioudun guztiak, astelehenetik ostiralera, irailaren 1etik ekainaren 30era arte, oporrak izan ezik, 201/2008 Dekretuaren 51. artikuluan ezartzen den eran.

Bost egun:  
lehenengo  
bilera egiteko  
epea

Bilera horretan Protokoloa hastea erabaki izan bazen, zuzendariak jakinaraziko du A TXOSTENA bete behar dela nahitaez, eta Hezkuntzako Ikuskaritzari igorri behar zaiola.

### **3. PAUSOA.- A TXOSTENA. Informazioa biltzea eta aztertzea. Larrialdi-neurriak hartzea. Familiei jakinaraztea lehenengo aldiz.**

Behin zuzendaritza-taldeak tratu txar posibleak daudela dakienean, gertakarien inguruko datuak eta frogak biltzen hasiko da. Horiek aztertu ondoren, berdinen arteko tratu txarren ezaugarri jarraiki, ebatzi ahal izango dugu tratu txarrik badagoen ala ez. Froga daitezkeen datuetan oinarrituta hartu behar dira beti erabakiak. Horregatik, informazioa triangelatzekeo prozedura erabilgarria izan daiteke. Informazio-iturri guztien arteko elkarguneak, bat-etortzeak, bat-egiteak

Gertakarien  
gaineko  
datuak eta  
ebidentziak  
bildu behar  
dira nahitaez

eta desadostasunak bilatu behar dira. Eskuratutako datuetan oinarrituta, ikastetxeak zehaztu beharko du berdinen arteko tratu txarren esparruko egoerarik badagoen eta, egonez gero, zer motatakoa den eta zer larritasun-maila duen.

Zuzendariak, edo kasuaren jarraipena egiteaz arduratutako ikastetxeko pertsonak, beharrezko informazioa bilduko dute jarraian azaltzen diren iturrietatik, eta idatziz jasoko dituzte bildutako datuak.

Modu zuhurrean bilduko da informazioa, eta ez da erabili behar ikasleentzat – horien adinagatik, heldutasunagatik edo gogo-egoeragatik– kaltegarri izan daitekeen eta/edo kasua argitzea zail dezakeen metodori. Betiere, kasuaren gaineko informazio ematen duten ikasleak eta horien anonimotua babestuko dira.

1. Ustez erasotua izan den ikaslea.
2. Ustez erasotzaile izan diren ikasleak.
4. Gelako tutorea eta irakasleak.
5. Pertsona erasotuaren eta/edo erasotzailearen ikaskideak.
6. Beste batzuk (beharrezko irizten bada soilik):

6.1. Ikastetxearekin lotutako pertsonak (jangelako zaintzaileak, autobuseko laguntzaileak, eskolaz kanpoko jardueretako begiraleak, AZL, etab.).

6.2. Beste erakunde batzuetako pertsonak (aisialdiko hezitzaileak, Gizarte Ongizatea, Osakidetza, etab.).

Informazioa bildutakoan, zuzendariak bigarren bilera baterako deialdia egingo dio irakaskuntza-taldeari, egoki irizten badu. Bilera horretan zehaztuko da tratu txarrik badagoen ala ez, bai eta zer larrialdi-neurri hartuko dituzten ere, beharrezkoa bada. Bilera horren ondorioei buruzko informazioa jasoko du zuzendariak *A TXOSTENEAN*.

Beharrezkoa bada, ***Behin-behineko larrialdi-neurriak*** hartuko dira ustez erasotua izan den pertsona babesteko eta/edo erasoak saihesteko:

***Ustez erasotua izan den ikaslearen berehalako segurtasuna bermatzeko eta beste eraso batzuk eragozteko neurriak***

- Ustez erasotua izan den ikaslea espezifikoki zaintzea.
- Familiei laguntza eskatzea haien seme-alabak zaintzeko eta kontrolatzeko.
- Banakako tutoretzak pertsona inplikatuekin.
- Ikastetxeko heldu bat izendatzea, biktimak harengana jo dezan behar duen bakoitzean.
- Aurrez osatutako kide-taldeak biktimari laguntzeko, arrisku handieneko uneetan batez ere (sartzean, irteteen, korridoreetan, etab.).
- Irakasleen ordutegiak berrantolatzea dagokion ikasleari arreta espezifikoa emateko.
- Beharrezko irizten bada, taldez aldatzea denbora batez.
- Bere burua babesteko jarraibideak ematea biktimari.
- Langile espezifikoak areagotzea.
- Hala badagokio, etxez etxeko laguntza eskatzea.

tratu txarrik badagoen jakiteko eta horien larritasun-maila zehazteko

Zuhurtasunez jardun behar da, eta informazioa ematen duten ikasleak babestu

Tratu txarrik badagoen ala ez erabakitzea

Behin-behineko neurrien bidez, biktima babestuko dugu, eta beste eraso batzuk eragoztiko



- Beste batzuk.

### ***Ustez erasotzaile diren ikasleei zuzendutako neurriak***

- Ustez jazarle diren ikasleak espezifikoki zaintzea.
- Tutoreak edo ikasketa buruak errieta egitea bakarka.
- Garbi adieraztea ikastetxean ez direla onartzen jokabide jakin batzuk, onartzen denaren mugak adieraztea eta arazoa oso larria dela ulertaraztea.
- Familiei laguntza eskatzea haien seme-alabak zaintzeko eta kontrolatzeko.
- Beharrezko irizten bada, erasotzailea edo erasotzaileak taldez aldatzeko kautelazko erabakia har daiteke.
- Beste batzuk.

Ikasle  
erasotzaileekin  
lan egitea

Fase honi amaiera emateko, *A TXOSTENA* egin behar da. Zuzendariak edo horrek izendatutako pertsonak egingo du txostena.

*II. eranskinean* jasotzen da *A TXOSTENA* egiteko erredua.

### ***Familiei jakinaraztea lehenengo aldiz***

Kontu handiz prestatu behar dira familiei egin beharreko jakinarazpenak, eta zehazki ezarri behar dira bilera bakoitzeko helburuak. Elkarrizketetan parte hartuko duten pertsonen kopurua murriztu egin behar da, eta elkarrizketak ez dira bikoiztu behar.

Arazoa seriooki lantzen ari garela ikusteak lasaitu egingo ditu familiak, eta konfiantza emango die.

Familia bakoitzarekin bere aldetik lan egingo dugu. Prozesuaren amaieran edo arrazoi sendoak direla eta soilik lan egin ahal izango dugu era berean familia batekin baino gehiagorekin.

Funtsezkoa da liskarrak saihestea.

Familiekin lan  
egiteko  
jarraibideak.  
Arretaz aztertu  
behar dira,  
tratu txarren  
ondorioak ez  
okertzeko

Edonola ere, azpimarratu nahi dugu xede bakarra ez dela gatazka-egoera desagerraraztea, ikasleek esperientzia horretatik honako hauek ikastea ere nahi baitugu: jarrera-aldaketa, trebetasun sozialak, etab.

Familiekiko jarrera ulerkorra erakutsi behar dugu. Ez dugu erruduntasuna azpimarratu behar. Leuntasunez eta errespetuz iradoki behar ditugu aldaketak edo egin behar ditugu proposamenak. Garbi adierazi behar dugu haien seme-alaben ongizatea eta garapen pertsonala, soziala eta morala direla helburu nagusiak.

Ikuspegi praktikotik, bilera guztietan akta jasotzea gomendatzen da; akta horretan adieraziko dira bileraren xedea, parte-hartzaileak, ondorioak, proposamenak...

Familiei beren seme-ari edo alabari buruzko informazioa ematean, inoiz ere ez zaie beste ikasle bati buruzko informaziorik emango.

Orain arte esandakoa kontuan hartuta, honako hauek egingo ditu tutoreak edo zuzendariak izendatutako pertsonak:

- *Biktima izan den ikaslearekin eta haren familiarekin hitzordua jartzea, eta banakako bilera egitea*, honakoetarako:

– Informazioa biltzeko eta arazoak zer irismen duen jakiteko. Gurasoak edo

legezko ordezkariak jakinaren gainean ote dauden jakiteko, eta, hala badagokio, horren inguruan zer neurri hartu dituzten jakiteko.

– Ikaslearen gurasoak edo legezko ordezkariak jakinaren gainean ez badaude, gertakarien berri emateko.

– Hartu diren edo hartu behar diren larrialdi-neurrien berri emateko; horien iritzia eta/edo iradokizunak jasoko dira.

– Gauza ditzaketen aukera guztiei buruzko informazioa ematea biktimari eta sendiari: salaketa jartzea polizia-etxean, salaketa jartzea fiskaltzan, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza –biktimei arreta emateko telefono-zenbakia–, gizarte-zerbitzuak eta udalerrietako berdintasun-sailak, etab.

• *Ikasle erasotzaileekin eta haien familiekin hitzorduak jartzea, bai eta gainerako inplikatuekin ere, eta banakako bilerak egitea, honakoetarako:*

– Salatutako gertakariei buruzko informazioa emateko eta biltzeko, eta gurasoak edo legezko ordezkariak jakinaren gainean ote dauden jakiteko, eta, hala badagokio, horren inguruan zer neurri hartu dituzten jakiteko.

– Hartu diren edo hartu behar diren larrialdi-neurrien berri emateko; horien iritzia eta/edo iradokizunak jasoko dira, betiere arazoa konpontzeko ahaleginak egiten dituztela ulertuta, ez beren kargura dagoen adingabea faltsuki babesteko ahaleginak.

– Ikastetxeak egin beharreko jardueren berri emateko, bai eta erasotua izan den pertsonaren familiak edo legezko ordezkariak egin ditzaketen ekintzen berri ere, garbi ikusten bada ustezko delitu-egitateak egon direla.

#### **4. PAUSOA.- “A TXOSTENA” igortzea Hezkuntzako Ikuskaritzari**

Datuak kontuan hartuta, ikastetxeak ebatziko du berdinen arteko tratu txarren esparruko egoera bat den ala ez, *Gida* honetan azaldutako definizioari jarraiki.

Behin *A TXOSTENA* betetakoan, zuzendariak Hezkuntzako Ikuskaritzara igorriko du, tratu txarrik egon dela edo ez dela ebatzi bada ere.

*A TXOSTENA* Hezkuntzako Ikuskaritzara igorri behar da *15 eskola-eguneko epean, gertakariak jakinarazi ziren unetik zenbatzen hasita.*

15 egun: *A TXOSTENA* Hezkuntzako Ikuskaritzara igortzeko epea

#### **5. PAUSOA.- EZ dago tratu txarren ebidentziarik: hezkuntza-tratamendua, egoeraren arabera**

Ikastetxeak erabakitzen badu ez dela tratu txarrik egon, gertakariei eta inplikaturako ikasleei zer hezkuntza-tratamendu emango dien aztertu beharko du.

Ohartarazitako jokabideak berdinen arteko tratu txarren edo *bullying*aren esparrukoak ez badira ere, zuzendariak balioetsi beharko du ea jokabide horiek bizikidetzarako desegokiak, aurkakoak edo oso kaltegarriak diren; eta dagozkion erabakiak hartu beharko ditu, betiere, 201/2008 Dekretuan azpimarratutako bizikidetzaren positiboa sustatzeko ikuspegitik.

Jasotako gertaeren larritasuna dela eta zuzendariak beharrezko irizten badu, beste instantzia batera igorri ahal izango ditu, aipaturako dekretu horren sarreran adierazten den eran:

Tratu txarrik ez badago ere, neurriak har daitezke 201/2008 Dekretuaren arabera

*Halaber, ez da ahaztu behar batzuetan ikasleen jokabideak larritasun handiagokoak izan daitezkeela. Zenbait kasutan, jokabide horiek delituak edo zigor-arloan zigortzeko moduko hutsegiteak izango liriteke ikasleak adin nagusikoak izango balira. Baina, kasu horietan ere, ikastetxearen jardunak hezkuntza-izaerari eutsi behar dio. 5/2000 Lege Organikoan, urtarrilaren 12koan, Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duenean, xedatutakoa betez gertakizunen berri Fiskaltzari ematen zaionean ere, ikastetxeen barnean jokabideak modu hezigarrian zuzendu behar dira, betiere kontuan izanik arauak hautsi dituztenak prestakuntza-prozesuan dauden herritarrak direla, oinarritzko gaitasun jakin batzuetan gabeziak dituztenak, hala nola gizarte- eta herritartasun-arloko gaitasunean, eta gabezia horiek konpontzeko neurri zuzentzaileak aplikatu behar direla.*

## **6. eta 7. PAUSOAK.- BADAUDE tratu txarren ebidentziak: prozedura espezifiko eta B TXOSTENA lantzea.**

Jasotako informazioa aztertu ondoren ebazten bada badagoela nahikoa ebidentzia berdinen arteko tratu txarrak egon direla baieztatzeko, kasu horietarako, jarraian azaltzen den tratamendu espezifiko abiaraziko da.

*Gida honekin batera aurkezten den B TXOSTENA beteko du ikastetxeak. Hezkuntzako Ikuskaritzak hala eskatzen duenean ere bete beharko du txosten hori.*

B TXOSTENA:  
tratu txarrak  
daudenerako

Prozesuan zehar eta horrek sorraraziko dituen jardueretan, kontuan hartu behar dira honako agindu eta arau hauek: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako; eta 201/2008 Dekretua, ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa; bai eta ikastetxeko AJA-BAN eta bizikidetzaren planean xedatutakoak ere.

Era berean, 201/2008 Dekretuari jarraiki, eta ikastetxeko zuzendariak ezar ditzakeen zuzenketa-neurriei dagokienez, azpimarratu nahi dugu kontuan hartu behar dela zer hezkuntza-etapatan dauden ikasle inplikatuak. Izan ere, Lehen Hezkuntzakoak badira, oro har, jarduera horien ondorioz ez da hasiko Dekretu horren 29.3 artikuluan aipatzen den ohiko prozedura. Aldiz, Bigarren Hezkuntzakoak badira, ohiz kanpoko prozedura hasiko da, 68.b artikuluari jarraiki.

Oro har, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan esku-hartze desberdinak egiten dira

Horregatik, B TXOSTENAK egitura desberdina izango du tratu txarrak gertatu diren hezkuntza-etaparen arabera.

Edonola ere, gauzatuko diren prozedurek eta jarduerak hezkuntza-izaera izango dute, eta honako xede hauek izango dituzte: ikasle inplikatuengaz ongizatea eta garapen pertsonal, sozial eta moral egokia, desegoki eta bizikidetzaren aurkako diren jokabideak zuzentzea, asertzio-jokabideak ikastea, eta behin betiko aldatzea jokabide eta jarrera desegokiak. Jarduera horien bidez, bizikidetzaren positibitate bat gauzatzeko oinarriak sendotuko ditugu, berdinen arteko tratu txarrik onartzen ez duen giro sozial bat sortzeko ikastetxean.

Esku-hartzeek hezkuntza-izaera izango dute beti

Edozein erabaki hartzerakoan, aintzat hartu behar ditugu inplikaturako ikasleen ezaugarriak eta egoerak, bai eta proposaturako neurriek izan ditzaketen ondorioak ere. Neurri horiek etengabe ebaluatu beharko ditugu, eraginkorrak ote diren egiaztatzeko.

Ikasleen ezaugarrien arabera hartuko dira erabakiak

Prozesu osoan zehar zaindu behar ditugu nahitaezko konfidentzialtasuna eta datuen babesa.

## **Prozedura desberdina da Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan:**

### **A.- Lehen Hezkuntzan**

INFORMAZIO OSAGARRIA BILTZEA, beharrezko irizten bada gertakarien zehetasunak ongi ezagutzeko edo beste datu batzuk biltzeko.

Informazio-bilketa berri horretan, aurrez aipatutako prozedurez gainera, soziogramak edo antzeko teknikak erabili ahal izango ditugu talde-ikasgelako barne-harremanei buruzko informazioa biltzeko, bai eta behaketa sistematikoak, bitartekari-behatazaileen esku-hartzeak eta abar ere.

Edonola ere, ikastetxeak uste badu kanpoko langileen aholkua behar duela, laguntza eskatuko die Berritzeguneei eta/edo Hezkuntzako Ikuskaritzari.

Lehen Hezkuntzan, informazio gehiago bildu behar ote den balioetsiko da

JARDUERA-PLANA planifikatzea eta idaztea. Bertan jasoko da ikastetxeak zer esku-hartze hezigarri gauzatuko dituen erasotua izan den ikaslea zaintzen jarraitzeko, ikasle erasotzaileei jarduera horiek errepikatzea eragozteko, ikasle ikusleei jarduera-jarraibideak emateko, eta bizikidetzaren kontrako jokabideak berrezteko, gizarte- eta herritartasun-gaitasunak eta norbanakoen nortasuna eta autonomia sustatuz.

Jarduera-planak zehaztuko ditu esku-hartze hezigarriak

Era berean, hartu beharreko neurriak ezarriko ditu, ikastetxe-mailan zein ikasgeletan, eta gatazkarekin zerikusia duten ikasleekin. Banakako tratamendua bermatu behar da, bai biktimarekin, bai eta pertsona erasotzaile bakoitzarekin eta zerikusi handiena duten ikasle "ikusleekin" ere.

Jarduerak planifikatzerakoan eta proposatzerakoan, kontuan hartu behar ditugu zerikusia duten ikasleen ezaugarri eta egoera guztiak, eragina izan dezaketelako sortutako gertakarietan. Horiek kontuan hartuz gero, eraginkorrak izango dira aplikatuko ditugun neurriak.

Ildo beretik, garrantzitsua da hartzen ditugun neurrien eraginkortasuna sistematikoki ebaluatzea.

Jarduera-plana lantzerakoan, ikastetxeak komenigarri irizten badu, aholku eskatu ahal izango die Berritzeguneei eta/edo Hezkuntzako Ikuskaritzari.

*VI. eranskinean* jaso dira jarduera-plana lantzeko jarraibide batzuk.

BILERA, INPLIKATUTAKO IKASLEEN FAMILIEKIN. Komenigarri irizten bada, bilerak egin ditzakegu berriz ere inplikaturako ikasleen familiekin, izan ere, elkarrizketa horietan datu baliagarriak bil ditzakegu jasotako (gertaeren testuingurua zehazteko eta horiek zer dakarten ulertzeko).

Proposatuko ditugun bileretan, lehen aipatutako irizpideak jarraitu behar ditugu, bai familiekin, bai eta beste iturri batzuekin ere. Bilerak eraginkorrak izan behar dira, eta xede garbiak izan behar dituzte; gainera, helarazten dizkiguten datuen konfidentziasuna bermatu behar dugu.

Edonola ere, bilera hauetan, familiei ikastetxeak eman dituen pausoen eta bildu dituen ebidentzien berri ematen jarraituko dugu, bai eta dagokien ikasleekiko hartutako banakako neurrien, taldeentzat proposatutako antolaketa- eta prebentzio-neurrien eta mailarako eta/edo ikastetxerako proposatutakoen berri ere.

Jarduera-planaren JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

Lehen esan dugun eran, nahitaezkoa da hartutako neurriak eta prozesuaren bilakaera etengabe ebaluatzea. Beraz, hasieran proposatutako jarduera-plana

Planaren jarraipena eta

aldatu egin daiteke, kasuaren bilakaeraren arabera. Aldaketarik eginez gero, Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinarazi beharko zaio.

ebaluzioa egin behar dira

## **B.- Bigarren Hezkuntza**

### OHIZ KANPOKO PROZEDURA

Bigarren Hezkuntza, 201/2008 Dekretuko IV. kapituluko 4. atalean azaldutako pausoak jarraituko ditugu; zuzenketa-neurriak aplikatzeko ohiz kanpoko prozedura arautzen da bertan.

Jarraituko dugun prozedurak bat etorri behar du Dekretu horren artikuluekin, honako alderdi hauei dagokienez:

- Prozedura hasteko epea –hiru egun– (69. artikulua)
- Hasierako ekitaldiaren gutxieneko edukia –jokabidea deskribatzea, izapidegilea izendatzea, bide alternatiboen bidez prozedura eteteko aukera– (70. artikulua)
- Izapidegilea izendatzea (71. artikulua)
- Hasierako egintzaren nahiz behin-behineko balizko neurrien jakinarazpena (72. artikulua)
- Izapidegilea errefusatzeko aukera (73. artikulua)
- Izapidegilearen jardunak (74. artikulua)
- Jakinarazpena Fiskaltzari (75. artikulua)
- Entzunaldirako zitazioa (76. artikulua)
- Entzunaldiaren izapidea (77. artikulua)
- Ebazpen-proposamena (78. artikulua)
- Ohiz kanpoko prozedura amaitzeko epea –gehenez ere 15 eguneko epea– (79. artikulua)
- Espedientearen ebazpena eta jakinarazpena (80. artikulua)

Bigarren Hezkuntza, 201/2008 Dekretuko IV. kapitulua hartuko dugu kontuan

### ADISKIDETZE- EDO KONPONTZE-NEURRIAK

Aipatutako Dekretuaren III. kapituluan laburbiltzen dira jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak:

*Halaber, helburu hezigarria sustatzeko, lehenetsuna ematen zaio bizikidetzeta-gatazkak konpontzeko adiskidetzearen eta kaltea konpontzearen mekanismoak baliatzeari; izan ere, hezkuntzari dagokionez, honako neurri hauek hezigarriagoak dira: arau-hausleak edo haren gurasoek edo legezko ordezkariak jokabidea desegokia izan dela onartzea, pertsona minduari barkamena eskatzea, eta kalteak konpontzea, kalteak konpontzeko neurrien artean eragindako kalteen zenbatekoa ordaintzea barne.*

Adiskidetze-  
edo  
konpontze-  
neurrien  
zentzua

201/2008 Dekretuaren arabera, proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta bada, eten egingo da. Prozedura bertan behera utziko da baldin eta adiskidetzea gauzatu bada, eta konpondu egiten badira bizikidetzaren aurkako jokabideen eta hari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haiek konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada.

Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.

Hala eta guztiz ere, berdinen arteko jazarpena larritzat jotzen denez, egoera horietan ez da prozedura etengo, baina arindu egin ahalko dira aplikatuko diren neurriak (Dekretuko 43., 44. eta 45. artikulua).

Jazarpen-  
kasuen mugak

JARDUERA-PLANA eta JARRAIPENA eta EBALUAZIOARI dagokienez, Lehen Hezkuntzarako ezarritako jarraibide berak beteko dira.

*B TXOSTENA* igorri ondoren, ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da jardueraplanean aurreikusitako neurriak ezartzeaz. Ikastetxearen erreferentziazko ikuskariari jakinaraziko dio, aldizka, neurriak zer mailatan bete diren eta zer egoera sozioheztizaitan dauden ikasle inplikatuak.

Jardueraplanean –*B TXOSTENEAN* jasotakoan– aldaketarik eginez gero egoeraren bilakaera dela eta, erreferentziazko ikuskariak jakinaraziko zaio, eta kasuarekin lotutako edozein gertakari garrantzitsuren berri ere emango zaio.

Erreferentziazko ikuskariak egingo du jardueraplanaren jarraipena, bai eta kasuaren bilakaerarena ere. Jarraitutako prozedura ebaluatu ahal izango du gainera, eta hobekuntza-proposamenak egin.

#### **8. PAUSOA.- *B TXOSTENA* igortzea Hezkuntzako Ikuskaritzari**

Txosten hori egingo da baldin eta *A TXOSTENEAN* zehaztutako berdinen arteko tratu txarren ebidentziak aurkitu baditu ikastetxeak, edo hezkuntzako ikuskariak hala eskatu badu.

*B TXOSTENA* Hezkuntzako Ikuskaritzari igorri behar zaio beti.

*III. eranskinean* jaso da *B TXOSTENAREN* ereduak.

#### **9. PAUSOA.- Beste instantzia batzuei jakinaraztea, hala komeni bada**

Kasua bereziki larria delako, edo delitua egin dela uste delako, kanpoko instantziei jakinarazi behar bazaie, 5. atalean aipatutako irizpideak jarraituko ditu ikastetxeak. Ildo beretik, 201/2008 Dekretuaren 75. artikuluan azaltzen da zer jarraibide bete behar diren gertakariak Fiskaltzari jakinarazteko.

#### **10.- PAUSOA.- Kasua amaitzea.**

Zuzendaritzak uste duenean modu egokian zuzendu duela egoera, idatziz jakinaraziko dio erreferentziazko ikuskariak.

### 3. ZATIA: ERANSKINAK

**0. ERANSKINA:** FAMILIAREKIN BILERA. AKTAREN EREDUA

**I. ERANSKINA:** BILERA IKASTETXEAN. AKTAREN EREDUA

**II. ERANSKINA:** A TXOSTENA

**III. ERANSKINA:** B TXOSTENA

**IV. ERANSKINA:** TRATU TXARREN BESTE EZAUGARRI BATZUK

**V. ERANSKINA:** *ZIBERBULLYINGA*

**VI. ERANSKINA:** JARDUERA-PLANA LANTZEKO ORIENTABIDEA

**VII. ERANSKINA:** TRATU TXARREN TRATAMENDURAKO PREBENTZIO-NEURRIAK

**VIII. ERANSKINA:** BERRITZEGUNEEN ZERRENDA

**IX. ERANSKINA:** BIBLIOGRAFIA

**0. ERANSKINA**  
**FAMILIAREKIN EGINDAKO BILERAREN AKTA**

**1.- IKASTETXEAREN DATUAK**

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

**2.- IKASLEAREN DATUAK**

Ustezko biktimaren edo biktimen izen-abizenen inizialak	
Ikaslea identifikatzeko kodea	
Sexua	
Adina	
Maila/Taldea	

**3.- FAMILIAK KONTATU DITUEN GERTAERAK**

(Saiatuko da familiak kontatu dituen gertaerak ahalik eta zehatzen transkribatzen)

**4.- USTEZKO BIKTIMAREN SEGURTASUNA BERMATZEKO ZUZENDARITZAK HARTUKO DITUEN BEHIN BEHINEKO NEURRIAK**

.....-(e)(a)n, 20..-ko .....-ren .....-(e)(a)n.  
Zuzendaria

Zuzendaria

Aita/ama/Tutorea

Izpta. :.....

Izpta. :.....



# I. ERANSKINA

## IKASTETXEAN EGINDAKO BILERAREN AKTA

### 1.- IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

### 2.- BILERARA BERTARATUAK

Izen-abizenak	Kargua

### 3.- EZTABAIDATUTAKO GERTAKARIAK, USTEZKO JAZARPENAREN GAINEKO BEHAKETEN INGURUAN

(Eztabaidatuko diren gaien nahitaezko konfidentzialtasuna bermatu behar da, eta kontuan hartu behar da zuhurtasun osoz landu behar direla adingabeekin lotutako gai guztiak).

--

### 4. ADOSTUTAKO AKORDIOAK

(Erabakitzen bada aztertutako gertakariak ez direla tratatu txar, erabaki hori eragin duten datuak eta ebidentziak, baita hartutako erabakiak ere adierazi behar dira).

--

.....-(e)(a)n, 20..-ko .....-ren .....-(e)(a)n.  
Zuzendaria

Izpta. : .....

**OHARRA:** Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bilera egiten den egunera arte

## II. ERANSKINA A TXOSTENA

### NOIZ BETE BEHAR DA?

Ikastetxeak berdinen arteko tratu txarren esparruko jokabideren bat ikusten duen guztietan hasiko da protokoloa, bai eta ikasleren batek bere edo kideren baten kontrako balizko tratu txarren egoera bat dagoela adierazten duenean, edo ikasle baten familiak edo legezko tutoreek adierazten dutenean ere.

Era berean, honako egoera hauetan hasiko da protokoloa:

- Polizia- edo epai-salaketa jarri dela edo Arartekoari kexua aurkeztu zaiola jakinez gero.
- Hezkuntzako Ikuskaritzak hala eskatzen badu.

Kanpoko salaketarik ez badago ikastetxeak ez du protokoloa hasi beharrik izango, datuetan eta frogetan oinarrituta uste badu jokabideak ez direla larriak, eta horiek konpondu ahal izango dituela 201/2008 Dekretuaren II. kapituluari jasotzen diren jokabide desegokiak konpontzeko neurrien bidez. Ikastetxeak mota horretako neurriren bat hartzen badu jokabide desegokiaren bat dagoelako, I. Eranskinean idatzita geratuko da hori.

Beraz, zein dira protokoloa hasteko beharrik ezartzen ez duten jokabideak? Tratu txarrekin lotutako larritasun txikiko jokabideak, denbora laburrez agertu ohi direnak, irakasleen esku-hartzea eragiten dutenak, eta agertu ziren bezain bizkor desagertzen direnak. Ez dute ondorio iraunkorrik eragiten, mota larrieneko tratu txarretatik urrun daudelako.

Alabaina, jokabideek ondorio garrantzitsuak badituzte ikasleentzat, edo ezin badugu ziur jakin zer irismen izango duten, ikastetxeak aipatutako protokolo hori hasi beharko du nahitaez.

Hasiera batean protokoloa ez hastea erabakitzen bada ere, gerora erabaki hori aldatu ahal izango da egoerak okerrera egin duela adierazten badute datuek.

### ZENBAT DENBORA DAUKAGU TXOSTENA HEZKUNTZAKO IKUSKARITZARA IGORTZEKO?

A TXOSTENA Hezkuntzako Ikuskaritzara igorri behar da 15 eskola-eguneko epean, gertakariak jakinarazi ziren unetik zenbatzen hasita.

# A TXOSTENA

## 1.- IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

## 2. BILDUTAKO INFORMAZIOA<sup>1</sup>

### - Esku-hartzeko eskaeraren jatorria

	Adierazi X batekin
Tutorearen behaketak	
Beste irakasle baten behaketak	
Orientatzailearen/Aholkulariaren behaketak	
Ikaslea	
Familia	
Berritzegunea	
Hezkuntzako Ikuskaritza	
Beste batzuk (zehaztu)	

### - Esku-hartzea eskatu zeneko data

Urtea		Hilabetea		Eguna		Ordua	
-------	--	-----------	--	-------	--	-------	--

### - Ustezko biktimen eta erasotzaileen datuak

#### a) Ustezko biktima(k) (adierazi pertsona bakoitzeko):

	Lehena	Bigarrena	Hirugarrena
Ustezko biktimaren edo biktimen izen-abizenen inizialak			
Ikaslea identifikatzeko kodea			
Sexua			
Adina			
Maila/Taldea			

#### b) Ustezko erasotzaileak (adierazi pertsona bakoitzeko):

	Lehena	Bigarrena	Hirugarrena
Izen-abizenen inizialak			
Ikaslea identifikatzeko kodea			
Sexua			
Adina			
Maila/Taldea			

### - Bildu diren datuak eta ebidentziak<sup>2</sup>

--

<sup>1</sup> Izapideetan eta ikerketetan nahitaezko konfidentzialtasuna bermatu behar da, eta kontuan hartu behar da zuhurtasun osoz landu behar direla adingabeekin lotutako gai guztiak.

<sup>2</sup> Atal honetan deskribatuko dira irakasleek behatutako jokabideak, tratu txarren esparrukoak izan daitezkeenak, behin iturrietatik beharrezko informazioa bildu denean (protokoloko 3. PAUSOA). Beharrezkoa bada, auzia sorrarazi duen tratu txarren esparruko balizko egoeraren jakinarazpena deskribatuko da.

--

- **Balitzko tratu txarren esparruko egoera bat jakinarazi bada, jakinarazpena jaso duen pertsona**

Izena	
Ikastetxean betetzen duen eginkizuna	

- **Ustezko tratu txarrak non gertatu diren**

--

- **Lekukoak, halakorik badago**

--

- **Ikastetxeak datu gehiago biltzeko erabili dituen prozedurak**

--

### 3. INFORMAZIO GEHIGARRIA

	Adierazi X batekin
Mediku-txostena dago	
Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Polizia- edo epai-salaketa jarri da, edo Fiskaltzaren aurreko salaketa	
Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Arartekoari kexa aurkeztu diote	
Ikastetxeak ba al dauka kexaren kopiarik?	

### 4. BILDUTAKO INFORMAZIOEN AZTERKETA

- **Gertakarien deskribapena<sup>3</sup>**

--

### 5. BERDINEN ARTEKO TRATU TXARRIK BADAGOEN EDO EZ DAGOEN EZARTZEA<sup>4</sup>

- **Ba al dago botere-desorekarik?**

--

<sup>3</sup> Bildutako datuak eta ebidentziak aipatuko dira modu zehatzean eta objektiboan deskribapenean.

<sup>4</sup> Tratu txarrik badagoen edo ez dagoen zehazteko, sarreran azaldutako irizpideak jarraituko dira, eta kasu zehatz bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartu behar dira horiek aplikatzerakoan.

- **Ba al dago intenzionalitaterik/errepikapenik?**

--

- **Ba al dago babesgabetasunik/pertsonalizatorik?**

--

- **Ba al dago diagnosi zehatzik tratu txarrak egon direla baieztatzen duenik, edo zaila da hori zehaztea?**

--

- **Tratu txarren mota eta larritasuna**

	Ez	Bai	Zehatza	Errepikatua
1. Bazterketa eta marjinazio soziala – Norbait bazter uztea (pasiboa). – Ez uztea parte hartzen (aktiboa). – Sexuagatik, arrazagatik, minusbaliotasunagatik eta abarregatik diskriminatzea.				
2. Ahozko erasoa – Norbait iraintzea (zuzena). – Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa). – Goitzenak jartzea (mistoa).				
3. Zeharkako eraso fisikoak – Norbaiti gauzak ezkutatzea. – Norbaiti gauzak puskatzea. – Norbaiti gauzak lapurtzea.				
4. Zuzeneko eraso fisikoak – Norbait jotzea.				
5. Larderia/xantaia/mehatxua – Norbait mehatxatzea beldurrarazteko. – Gauzak egitera behartzea. – Armekin mehatxatzea.				
6. Sexu-jazarpena edo –abusua eta/edo jesarpen sexista – Sexualki jazartzea edo beldurtzea. – Sexu-abusua gauzatzea. – Inor modu sexistan beldurtzea, beheratzea, umiliatzea, mintzea edo zirikatzea.				
7.- Ziberjazarpena – Telefono mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen, txataren eta abarren bidez mezuak bidaltzea norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo horri iseka egiteko. – Grabazioak egitea mugikorrarekin egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexing), eta gainerako mutilei eta/edo neskei helaraztea edo Interneten esekitzea.				

- **Azterketa globala egin ostean, honako hau ondorioztatu dugu:**

	Adierazi X batekin
BADAUDE TRATU TXARRAK	
EZ DAGO TRATU TXARRIK	

## 6.- HEZKUNTZA-TRATAMENDUA EGOERAREN ARABERA

- *Hezkuntza-tratamendua, tratu txarrik EZ dagoenerako*<sup>5</sup>

- *Tratu txaren aztarnak aurkitzekotan, ikasle erasotua babesteko larrialdi-neurriak eta inplikaturako gainerako ikasleekin hartutako neurriak*<sup>6</sup>

## 7.- FAMILIEI JAKINARAZTEA

.....-(e)(a)n, 20...-ko .....-ren .....-(e)(a)n.

Zuzendaria

Izpta.:

---

<sup>5</sup> Behatutako edo salatutako gertakariak ikastetxeko berdinen arteko tratu txar ez direla uste bada.

<sup>6</sup> Atal honetan zehaztuko dira erasotua izan den ikaslearen berehalako segurtasuna bermatzeko neurriak, jardueraprotokoloan aipaturakoen arabera.

### III. ERANSKINA B TXOSTENA (Lehen Hezkuntza)<sup>1</sup>

Nahitaezko erreferentzia izango da 201/2008 Dekretua, EAEko ikasleen eskubideei buruzkoa. Horri jarraiki, balizko zuzenketa-neurriak ezartzerakoan, ikastetxeko zuzendariak kontuan hartu behar du zer hezkuntza-etapatan dauden inplikaturako ikasleak. Lehen Hezkuntzan, oro har, jarduera horien ondorioz ez da hasiko Dekretu horren 29.3 artikuluan aipatzen den ohiko prozedura. Horregatik, B TXOSTENAK egitura desberdina izango du tratu txarrak gertatu diren hezkuntza-etaparen arabera.

#### **NOIZ BETE BEHAR DA?**

Txosten hori egingo da baldin eta berdin arteko tratu txarren ebidentziak aurkitu baditu ikastetxeak, A TXOSTENEAN zehaztuko dituenak, edo hezkuntzako ikuskariak hala eskatu badu.

---

<sup>1</sup> B TXOSTENAREN ezaugarriak azaltzen dira Gidan, 2. ZATIAN, JARDUERA-PROTOKOLOARI BURUZKOAN, 6. eta 7. pausoetan, hain zuzen ere, "Badaude tratu txarren ebidentziak: prozedura espezifiko eta B TXOSTENA lantzea" izenekoan.

## B TXOSTENA (Lehen Hezkuntza)

### 1.- IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

### 2. A TXOSTENEAN BILDUTAKO INFORMAZIOA<sup>2</sup>

### 3.- A TXOSTENA HEZKUNTZAKO IKUSKARITZARA IGORRI ONDOREN SORTUTAKO INFORMAZIO GEHIGARRIA ETA DATU GARRANTZITSUAK<sup>3</sup>

Bileretan, elkarrizketetan, ikasgelako behaketetan (soziogramak eta beste teknika batzuk) edo beste toki batzuetan sortutako informazio berria, edo beste iturri batzuetatik lortutakoa.

--

Ikastetxeak eskatu al die laguntzarik Berritzeguneetako aholkularitza-zerbitzuei edo Hezkuntzako Ikuskaritzari?

--

### 4.- JARDUERA-PLANA

Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea

--

Hezkuntza-jarduerak

- Biktimarekin

--

- Ikasle erasotzailearekin

--

- Ikasle ikusleekin edo, hala komeni bada, ikasgelako taldearekin

--

<sup>2</sup> Hezkuntzako Ikuskaritzari igorri zaion A TXOSTENEAN jasotako datuak eskatzen direnez atal honetan, nahi izanez gero, txosten hori erantsi daiteke 2. puntuari erantzun beharrean.

<sup>3</sup> Informazio osagarria biltzea, beharrezko irizten bada gertakarien xehetasunak ongi ezagutzeko edo beste datu batzuk biltzeko.



[Empty box]

**Beste jarduera batzuk**

- Familiekin

[Empty box]

- Irakasleekin

[Empty box]

**Jarduera espezifikoak ziberjazarpena dagoenetarako**

[Empty box]

**5.- BILERAK FAMILIEKIN**

**Datak, bertaratuak, bilerako xedeak eta ondorioak eta/edo bileretan hartutako erabakiak.**

[Empty box]

**6.- TRATU TXARREN ESPARRUKO EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

**Jarduera-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak**

[Empty box]

**Jarduera-planaren eta gauzatutako esku-hartzeen ebaluazioa**

[Empty box]

**Zer prozeduraren bidez eta zenbatean behin eman zaion informazioa Hezkuntzako Ikuskaritzari**

[Empty box]

.....-(e)(a)n, 20...-ko .....-ren .....-(e)(a)n.

Zuzendaria

### **III. ERANSKINA B TXOSTENA<sup>1</sup> (Bigarren Hezkuntza eta, ohiz kanpoko egoeretan, Lehen Hezkuntzan)**

Derrigorrezko erreferentzia izango da 201/2008 Dekretua, EAeko ikasleen eskubideei buruzkoa. Horri jarraiki, ikastetxeko zuzendariak ezar ditzakeen zuzenketa-neurriei dagokienez, azpimarratu nahi dugu kontuan hartu behar dela zer hezkuntza-etapatan dauden ikasle inplikatuak. Izan ere, Lehen Hezkuntzakoak badira, oro har, jarduera horien ondorioz ez da hasiko dekretu horren 29.3. artikuluan aipatzen den ohiko prozedura. Aldiz, Bigarren Hezkuntzakoak badira, ohiz kanpoko prozedura hasiko da, 68.b. artikuluari jarraiki. Horregatik, B txostenak egitura desberdina izango du tratu txarrak gertatu diren hezkuntza-etaparen arabera.

#### ***NOIZ BETE BEHAR DA?***

Txosten hori egingo da baldin eta berdinen arteko tratu txarren ebidentziak aurkitu baditu ikastetxeak, A TXOSTENEAN zehazten direnak, edo hezkuntzako ikuskariak hala eskatu badu.

---

<sup>1</sup> B TXOSTENAREN ezaugarriak azaltzen dira Gidan, 2. ZATIAN, JARDUERA-PROTOKOLOARI BURUZKOAN, 6. atalean, hain zuzen ere, "Badaude tratu txarren ebidentziak: prozedura espezifikoa eta B TXOSTENA lantzea" izenekoan.

## **B TXOSTENA** **(Bigarren Hezkuntza eta, ohiz kanpoko egoeretan, Lehen Hezkuntzan)**

### **1.- IKASTETXEAREN DATUAK**

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

### **2. A TXOSTENEAN BILDUTAKO INFORMAZIOA<sup>2</sup>**

### **3.- PROZEDURA-IREKITZEA, ZUZENKETA-NEURRIAK APLIKATZEKO 201/2008 DEKRETUAREN ARABERA.**

Lehen Hezkuntzan ohiko prozedura eta Bigarren Hezkuntzan ohiz kanpoko prozedura jarraituko dira.

### **4.- JARDUERA-PLANA**

**Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea**

--

**Hezkuntza-jarduerak**

- Biktimarekin

--

- Ikasle erasotzailearekin

--

- Ikasle ikusleekin edo, hala komeni bada, ikasgelako taldearekin

--

**Beste jarduera batzuk**

- Familiekin

--

<sup>2</sup> Hezkuntzako Ikuskaritzari igorri zaion A txostenean jasotako datuak eskatzen direnez atal honetan, nahi izanez gero, txosten hori erantsi daiteke 2. puntuari erantzun beharrean.

- Irakasleekin

**Jarduera espezifikoak ziberjazarpena dagoenetarako**

## **5.- TRATU TXARREN ESPARRUKO EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

**Jarduera-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak**

**Jarduera-planaren eta gauzatutako esku-hartzeen ebaluazioa**

**Zer prozeduraren bidez eta zenbatean behin eman zaion informazioa Hezkuntzako Ikuskaritzari**

.....-(e)(a)n, 20....ko .....-ren .....-(e)(a)n.

Zuzendaria

## IV. ERANSKINA

### TRATU TXARREN BESTE EZAUGARRI BATZUK

Berdinen arteko tratu txarren ezaugarriak sakonki aztertzeke, horien gaineko azterketetara eta ikerketetara jo behar dugu. Azterketa horietatik ondorioztatzen diren deskribapenetan aurki ditzakegu horiek deskribatzeko gakoak, jarraian azaltzen diren esparruetan.

Ezaugarri horiek sakonkiago aztertzeke, honako bost erreferentzia bibliografiko hauek aukeratu ditugu:

- a) Ikaskideen arteko tratu txarrak Euskadin. 2009ko ikerlana.<sup>1</sup>  
Lehen Hezkuntza zein Bigarren Hezkuntza barne hartzen ditu ikerlan horrek.
- b) Indarkeria eskolan: berdinen arteko tratu txarrak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 1999-2006 –ikerketa berria eta 2000ko txostenaren eguneraketa– (2007).<sup>2</sup>
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskola-bizikidetzari buruzko Estatu-mailako ikerketa (2010).<sup>3</sup>
- d) Zergatik sortzen da eskola-indarkeria, eta nola egin daskioke aurre (2005).<sup>4</sup>
- e) Arartekoaren txosten berezia, ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei buruzkoa (2006).<sup>5</sup>

Jazarpen sexistari buruzko erreferentzi espezifikokoak:

- f) Análisis de la violencia hacia las niñas en la escuela primaria. Universidad de Huelva. Ministerio de Igualdad.

Jarraian datozen orrietan, hiru erreferentziatako zati batzuk errepikatzen ditugu, mota desberdinetako tratu txarren ezaugarri nagusiei buruzko balio-irizpideak ematen baitituzte.

#### **A.- MOTA DESBERDINETAKO TRATU TXARREN MAIZTASUNAK**

**Ahozko tratu txarrak, ohikoenak eta larritasun txikienekoak izan ohi direnak.**

##### a) ISEI-IVEI institutuaren txostena.

*Mota guztietako tratu txarrak bi etapetan eta hiru ikerlanetan aztertu ondoren, ahozko tratu txarrak direla nagusi ikusten da.*

*Gutxienetan gertatzen diren jokaerak sexu-jazarpena eta ciberbullyinga dira. Sexu-jazarpena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan bakarrik aztertu da, eta ikasleen %1 inguruk esan du horren biktima dela, aurreko ikasturtean izan zen antzeko ehunekoa. Ciberbullyinga 2008an aztertu zen lehenengoz, eta ikasleen %1ek baino gutxiagok esan du tratu txar hori jasaten duela. Ehunekoa ia bera da Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta balioak antzerakoak dira bi ikerlanetan. (21. orrialdea)*

Jarraian, zenbait motatako tratu txarren maiztasunei buruzko grafiko batzuk azaltzen dira, ISEI-IVEIren txostenean jasotakoak:

<sup>1</sup> Eskuragarri dago ISEI-IVEIren web-orrian: <http://www.isei-ivei.net/eusk/indexeusk.htm>

<sup>2</sup> Eskuragarri dago Arartekoaren web-orrian: <http://www.defensordelpueblo.es/eu/index.html>

<sup>3</sup> Eskuragarri dago Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren web-orrian:


[https://sede.educacion.gob.es/publiventa/inicio.action?request\\_locale=eu](https://sede.educacion.gob.es/publiventa/inicio.action?request_locale=eu)

<sup>4</sup> Ikus Hezkuntzako Aldizkari Iberoamerikarra, 37. zk. (2005), 17.-477. or.: <http://www.rieoei.org/rie37a01.htm>


<sup>5</sup> Eskuragarri dago Arartekoaren web-orrian:

[http://www.ararteko.net/p\\_1\\_final/Home.jsp?seccion=s\\_inot\\_d4\\_v2.jsp&language=eu](http://www.ararteko.net/p_1_final/Home.jsp?seccion=s_inot_d4_v2.jsp&language=eu)

**4.1 grafikoa: Lehen Hezkuntza**  
**Tratu txar moten bilakaera\* (2205-2008-2009)\*\***



**4.2 grafikoa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**  
**Tratu txar moten bilakaera\* (2205-2008-2009)\*\***



b) Arartekoaren txostena.


Modalitate bakoitzaren jazoera-ereduari dagokionez, emaitza hauek bat datoz 1999tik txosten honetara arte igarotako azken zazpi urteotan zehar egindako azterketa gehienekin. Txosten honetako 2. kapituluari aipatutako ikerlanek metodologia eta xede desberdinak badituzte ere, guztiek adierazten dute ahozko erasoak direla ohikoenak. Horien atzetik, gizarte-bazterketak eta ondasunen bidezko eraso bereziek (ondasunak ezkutatzea) betetzen dituzte hurrengo postuak, garrantzi-mailari dagokionez. Neurri txikiagoan, mota jakin bateko mehatxuak agertzen dira, hain zuzen ere, beldurtzeko egiten direnak, armarik eta xantaiarik gabekoak, bai eta zuzeneko eraso fisikoak ere (hau da, jotzea). Azken jokabide hori ekintza osagarriekin batera agertzen da beste ikerlan batzuetan (ostikoak ematea, bultza egitea...). Mehatxu larrienen edo sexu-jazarpenaren ehunekoak askoz ere txikiagoak dira gainerako modalitateenak baino, bai ikerlan honetan, bai eta aztertutako beste batzuetan ere. (240. orrialdea)

c) Arartekoaren txosten berezia, ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei buruzkoa.

*Ikastetxeetan mota guztietako tratu txarrak gertatzen dira, baina tratu txar kopurua "larritasunaren" alderantzizkoa da proportzionalki; hau da, tratu txarra zenbat eta larriagoa orduan eta kasu gutxiago.*

*Biktimen esanean, tratu txarren ordena, gertaera-kopuruaren arabera, honako hau da: hitzezko erasoak, zeharkako eraso fisikoak (lapurtzea, apurtzea), bazterketa soziala, eraso fisikoak, mehatxuak eta xantaiak, sexu-eraso fisikoak eta hitzezko sexu-erasoak. (103. orrialdea)*

3.11. irudia. Tratu txar mota ezberdinak egin edo gelakideengandik jaso dituzten ikasleen ehunekoak



## B.- TRATU TXARRAK NON GAUZATZEN DIREN

***Ikasgelan eta jolastokian gauzatu ohi dira tratu txarrak. Irakasleak aurrean ez daudenean gauzatu ohi dituzte ikasleek.***

a) ISEI-IVEI institutuaren txostena.

*Lehen Hezkuntzan: Biktimen esanetan, tratu txarreko jokaera gehien "jolastokian" jasaten dituzte, eta askoz ehuneko txikiagoan "ikasgelan". 2005eko eta 2008ko ikerlanetan bezala, tratu txarreko jokaerarik gehien, alde handiarekin, jolastokian gertatzen dira. Deigarri gertatzen da Lehen Hezkuntzako biktimiek ikaskideengandik jasaten dituzten tratu txarren %12 ikastetxetik kanpo gertatzen direla esatea. (40. orrialdea)*

*Bigarren Hezkuntzan: Tratu txarretako jokaeren heren bat ikasgeletan gertatzen dira, Lehen Hezkuntzan ez bezala, etapa horretan gehienetan jolastokian gertatzen baitira. Jokaera horiek batez ere irakasleak ikasgelan ez daudenean gertatzen direla pentsa daiteke. Tratu txarrak gertatzen direneko lekuak egonkor mantentzen dira 2008ko ikerlanarekiko. (61. orrialdea)*

b) Arartekoaren txostena.

*Ikasleek garbi bereizten dituzte tratu txarrak jasotzen dituzten tokiak –jasaten duten eraso-motaren arabera–, eta bat datoz AT-U (2000) ikerlanean*

argitaratutako emaitzekin. Ikasgelan gertatzen dira eraso gehienak, baina, dirudienez, eraso-mota bakoitza toki jakin batean gertatu ohi da. Irakasleek uste izaten dute jolastokian gertatzen direla tratu txar gehienak, baina, ikasleen esanetan, ikasgelan gertatu ohi dira, irakaslea ez dagoenean, bai eta irakaslea bertan dagoela ere batzuetan. Hori da tratu txarren ia modalitate guztien testuinguru ohikoena; salbuespenak dira "parte hartzen ez uztea", "mehatxuak" eta "mehatxuak armekin", horiek jolastokian gertatu ohi direlako. Modalitate batzuk hainbat tokitan gertatu ohi dira, batez ere "ahozko erasoak", "gizarte-bazterketa" eta "sexu-jazarpena".

Emitza horiek alderatuz gero Espainian 1999 eta 2006 artean egindako beste ikerlan batzuekin, ikerlan gehienek diote ikasgela dela erasoak gertatu ohi diren toki nagusia –batez ere irakaslea ez dagoenean–, eta jolastokia hurrengoa. Halere, dagokion tratu txarren modalitatearen arabera izaten da hori, neurri handi batean [Andaluziako Eskola Kontseilua, 2006; Gomez-Bahillo eta beste batzuk (2005); Serrano eta Iborra (2005); Pareja (2002)]. Halere, kontuan hartu behar da, batzuetan, ikerlanetan Lehen Hezkuntzako ikasleak ere barne hartzen badira (adibidez, Oñederrak eta beste batzuek 2005ean Euskal Autonomia Erkidegoan egindakoan, edo Ramirezek 2006an Ceutan egindakoan), jolastokian ikasgelan hainbat tratu txar gertatzen direla. (246. orrialdea)

## **C.- BERDINEN ARTEKO TRATU TXARRETAN INPLIKATUTA DAUDEN PERTSONEN EZAUGARRIAK**

### **C.1.- SEXUA**

#### **Mutilek gehiago parte hartzen dute.**

##### a) ISEI-IVEI institutuaren txostena.

Ikasleen sexuaren aldetiko analisiari dagokionez, 2009an tratu txarretako 12 jokaerretako bat gutxienez "sarritan" edota "beti" jasan dutela dioten mutilen ehunekoak neskena baino handiagoa da Lehen Hezkuntzan, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ehunekoak ia berdinak dira lehenengoz. Nesken eta mutilen arteko aldea 3,6 puntukoa da Lehen Hezkuntzan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hurbil daude sexu bakoitzaren ehunekoak (mutilen %11,4 eta nesken %11,8). (18. orrialdea)

Lehen Hezkuntzan: 2005ean eta 2008an bezala, biktimen esanetan tratu txarretako jokaeren ia erdia eragiten dutenak "mutil batzuk" dira. Hein nahiko apalago batean "mutil bat" eta "neskak eta mutilak" izaten dira. (41. orrialdea)

Bigarren Hezkuntzan: Tratu txarren emaleei dagokienez, erantzunik hautatuena (%44,3) "mutil batzuk" izan da, eta ondoren "mutil bat" (%20,3) eta "neskak eta mutilak" (%16,9). Aukera horiek gehiago agertzen dira beste aukera batzuk baino ("neska bat", "ikastetxetik kanpoko pertsonak"...). Lehen Hezkuntzako ikerlanak antzerako emaitzak izan ditu. (62. orrialdea)

##### b) Arartekoaren txostena.

Oro har, esan dezakegu generoari buruzko emaitzak antzekoak direla gure herrialdean zein beste herrialde batzuetan egindako ikerketetan. Guri dagokigunez, oro har, ondoriozta dezakegu mutilak gehiago inplikatzen direla tratu txarretan neskak baino, bereziki erasotzaileei dagokienez. Hala eta guztiz ere, zenbait motatako ahozko erasoei dagokienez, neskak dira protagonista nabarmenak. Erabiltzen diren ahozko tratu txarren kategorietan uniformetasunik ez dagoenez, ezin da orokorrean esan zein diren ohikoena emakume-generoaren, baina, dirudienez, gaizki esaka aritzeko ohitura da ohikoena Espainiako nesken artean. (242. orrialdea)

##### c) Arartekoaren txosten berezia, ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei buruzkoa.

Generoari dagokionez, baieztatu ahal izan denez, tratu txarrak gehienbat gizonezkoen eragiten dien fenomeno da, tratu txarrak gehiago pairatu eta egiten baitituzte nesken aldean. Zehazki,



3.4 taulan ikusten den eran, hitzeko erasoen, eraso fisikoen eta mehatxuen biktima direnen ehunekoa handiagoa da mutilen kasuan.

Bestalde, mutil erasotzaileen ehunekoa handiagoa da tratu txarren adierazpen gehienetan ere: hitzeko erasoak, eraso fisikoak, mehatxuak, biktimaren jabetzako gauzak apurtu eta lapurtzea, eta hitzeko sexu-erasoak.

(98. orrialdea)

Tratu txarren fenomenoak, orobat, gizonezkoena da. Gizonezkoek hitzeko eraso, eraso fisiko eta mehatxu gehiago pairatzen dituzte eta, emakumezkoekin erkatuta, askoz gehiagotan izaten dira erasotzaile tratu txar mota guztietan, bazterketa sozialean eta sexu-eraso fisikoetan izan ezik; horietan ez da alderik nabaritzen bi sexuen artean (103. orrialdea)

## C.2.- ADINAK


**Gehiago Lehen Hezkuntzan Bigarren Hezkuntza baino. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, lehenengo urteetan gehiago gertatzen dira.**

a) ISEI-IVEI institutuaren txostena.

Emaitzak etapaka aztertzen baditugu, 2009an ikertutako mota guztietako tratu txarretan ikasleen ehunekoak Lehen Hezkuntza Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baino handiagoak direla ikusten da, 2008ko ciberebullyingaren kasuan izan ezik. (21. orrialdea)

Jarraian azaltzen den grafikoak, ISEI-IVEIren txostenekoak, tratu txarren indizearen bilakaera jasotzen du, LHko 5. mailatik DBHko 4. mailara arte (19. orria):

**3. grafikoa: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**  
**Tratu txarren adierazle orokorraren bilakaera irakasmilaren eta urtearen arabera\***



b) Arartekoaren txostena.

Ikasmilari dagokionez, txosten honen 2. kapituluari jasotako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleekin gauzatutako Espainiako azterketetan ikus daitekeen joera orokorraren arabera, tratu txarrak ohikoagoak dira DBHko lehenengo mailatan. Halere, aldaketak daude tratu txarren

moten eta ikasleen generoaren arabera. Alabaina, azpimarratzekoa da, Lehen Hezkuntzako ikasleak ere barne hartu dituzten ikerlan gehienetan esanetan, etapa horretako azken bi urteetan ere gertatzen direla tratu txarrak (Madrilgo Erkidegoko Adingabeen Defentsaria, 2006; Sindic de Greuges de la Comunitat Valenciana 2007, Saenz, Calvo, Fernandez eta Silvan, 2005). (242. orrialdea)

### **C.3.- TALDEA/IKASGELA**

#### ***Funtsean, ikasgelako ikasleak dira jazarle.***

##### a) ISEI-IVEI institutuaren txostena.

Lehen Hezkuntzan: *Biktimen esanetan, tratu txarretako jokaeren %42,6 taldekideek eragiten dituzte. Gainerako jokaerak goragoko irakasmaila bateko ikasleek eragiten dituzte (%15,7), irakasmaila bereko beste talde batekoek (%23,5), ikastetxetik kanpoko pertsonak (%11,5) eta hein txikiagoan beheragoko irakasmaila bateko ikasleek (%6,7). Emaiza horiek eta 2005ekoak eta 2008koa oso antzekoak dira, urte haietan ere tratu txarretako jokaeren ehunekorik handiena biktimaren taldeko ikaskideek eragin baitzuten. (40. orrialdea)*

Bigarren Hezkuntzan. *Biktimek jasaten dituzten tratu txarretako jokaera gehienak (%48,2) taldekideek ematen dizkiete. Irakasmaila bereko beste talde batekoek, berriz, %23,5 ematen dizkiete, eta goragoko irakasmaila batekoek %13,8. Emaiza horiek Lehen Hezkuntzako antzerakoak dira. (60. orrialdea)*

##### b) Arartekoaren txostena.

*1999ko lan enpirikoan (AT-UNICEF, 2000) ikusi zenaren antzera, azterketa honetan ikusi ahal izan dugu ikasle erasotzaileen ikaskideek gauzatzen dituztela gehienetan tratu txarrak. "Mehatxuak armekin" modalitatea da salbuespena, ikaskideek eta beste ikasturte batzuetako ikasleek gauzatzen baitituzte aztertutako maila guztietan. Antzeko emaitzak lortu dituzte Hernandez eta Casaresek (2002), Sindic de Greuges de la Comunitat Valencianak (2006), Oñederra eta beste batzuek (2005). (244. orrialdea).*

### **D.- ERASOTZAILEEN ETA ERASOEN JOKABIDEAK**

Honako artikulua honetan aurki dezakegu erasotzaileen eta erasoaren ezaugarrien deskribapena: Zergatik sortzen da eskola-indarkeria, eta nola egin daiteke aurre, Diaz-Aguado, M.J., Hezkuntzako Aldizkari Iberoamerikarra, 37. zk. (2005), 20-24 orrialdeak.

Bestalde, eraso-jokabideekin lotutako faktoreak zehazteko elementuak azaltzen ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskola-bizikidetzari buruzko estatuko ikerketak 2. atalean, *Eskola-bizikidetzaren adierazleak baliozkotzea* izenekoan, eta, zehazki, 2.4. azpiatalean, *Ikasleen bidezko bizikidetzaren adierazleak iragarpen-ereduak* izenekoan (129.-135. or.). 4.1. atalak, *Ikasleen erantzunen gaineko emaitzak* izenekoak (141.-182. or.), zenbait datu eta ebidentzia eskaintzen ditu erasotzaileen eta biktimen ezaugarrien gainean, eta aurrez azaldutako profilak osatzen.

Ikastetxeetako irakasleek eta zuzendaritzek Berritzeguneetako aholkulariengana jo dezakete bibliografia gehiago bildu nahi izanez gero.

## V. ERANSKINA

### ZIBERJAZARPENA (ZIBERBULLYING)

Berdinen arteko jazarpenaren modalitate bat da ziberjazarpena, teknologia berriak (SMSak, posta elektronikoa eta sare sozialak erabiltzen dira gehien) erabiltzen dituen eraso *on-line* gauzatzeko.

*Ziberbullyinga* garrantzi handiko fenomeno da, bere hedadura, ondorioen larritasun eta arazoari aurrea hartzeko eta heltzeko zailtasunak direla eta. Ingurune babestu batetik gauzatzen da (gehienetan etxetik), anonimatuan ezkututzen da (zigorgabetasun-sentimendua); eta biktimarekin zuzeneko kontakturik (aurrez aurre) ez dagoenez, erasotzaileak ezin du neurtu bere ekintzek biktimarengan eragin dezaketen kaltea. Ziberjazarpenean, erasotzailea biktimaren ezagunen ingurukoa izaten da, baina ez dauka ikastetxe berekoa izan beharrik, ez eta *bullying*erako ezarritako profila eduki beharrik ere.

Mota horretako jazarpena ikastetxean gertatzen ez bada ere, hezkuntza-jarduerarekin kausa-efektuzko erlazio bat dagoela egiaztatzen bada (201/2008 Dekretuaren 33. artikulua), ikastetxearen betebeharra da horren gainean jardutea gida honetan jasotako jardura-protokoloari jarraiki.

Edonola ere, balizko ziberjazarpen-egoeretan, Gida honetan aipatutako heziketa-irizpideei jarraiki jardun behar du ikastetxeak.

Fenomeno hori familiek eta ikastetxeek hobeki ezagut dezaten, "Ikastetxeetan *ziberbullyingari* aurre egiteko jardura-protokoloa" helaraziko die Hezkuntza Sailak ikastetxeei. Pedagogian, psikologian, teknologia berrietan eta zuzenbidean aditu diren pertsonak landu dute protokolo hori, eta, beste batzuen artean, honako gai hauek landu dituzte:

- *Ziberbullyinga*, arazo konplexua
- Nola antzeman *ziberbullying*-egoerak
- Nola jokatu *ziberbullyinga* gertatzen den susmoa dugunean
- Nola jokatu *ziberbullying*-kasuetan
- Sistema penalaren esku-hartzea
- *Ziberbullying*-ekintzak identifikatzea eta egiaztatzea
- Lege-erantzuna

"Ikastetxeetan *ziberbullyingari* aurre egiteko jardura-protokoloa" ez da aurkezten dugun Gida honen ordezkua. Gida honen osagarri da, eta hori zabaldu nahi du hala behar duten egoerarako.

## VI. ERANSKINA

# JARDUERA-PLANA LANTZEKO ORIENTABIDEA

Jarraian, jarduera-plana lantzeko orientabidea aurkeztuko dugu. Jarduera-planak bat etorri behar du bizikidetzaren planarekin eta ikastetxeko AJA-BArekin, bai eta ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko 201/2008 Dekretuarekin ere.

Komenigarria da lan-talde bat osatzea eta/edo irakasle arduradun bat izendatzea informazioa koordinatzeko eta zentralizatzeko, jarduerak planifikatzeko, familiekin egingo diren bilerak prestatzeko eta deitzeko, kasuaren jarraipena egiteko eta gauzatzen diren ekintzak eta egoeraren bilakaera ebaluatzeko.

Protokoloko fase guztietan bezala, konfidentziasuna eta datu guztien babesa bermatu behar dira.

Izendatutako irakasle hori arduratuko da, zuzendaritzarekin batera, B txostena betetzeaz.

Jarduera-planean, kontuan hartu behar dira, gutxienez, honako alderdi hauek:

### a) Usteko biktimarekin gauza daitezkeen jarduerak

- Laguntza-, babes- eta segurtasun-bermea ematea biktimari ikaslearentzat hurbilekoa den heldu baten bidez.
- Laguntza eskatu behar duela adieraztea. Laguntza eskatzeak ez diola kalterik egingo azalduko diogu, eta diskrezioa eta konfidentziasuna bermatuko. Konfiantza sendotu beharko da, jasaten ari den jazarpenaren edukiekin lotutako edozein esperientzia kontu dezakeela jakin dezan, eta garbi adierazi behar da eduki horiek ez dutela inola ere justifikatzen jasaten ari den jazarpena, sexu-jazarpeneko edo jazarpen sexistako egoeretan askotan ikusten baita egoera hori.
- Indarkeria-egoeraren testuingurua aztertzea, egoera hori zer unetan dagoen jakiteko:
  - Hasierako faseetan badago: berehalako lana biktimarekin, seguru senti dadin, emozio-oreka mantentzen edo berreskura dezan, ez diezaion kulparik egotzi bere buruari, estres-maila murriztu dezan, ez dezan orokortu, eta bere autoestimua ez diezaion kalterik eragin.
  - Ondorengo faseetan badago, erasoaren kulpak daukara pentsa dezake biktimak, edo jokabide-aldaketa izan. Horrela bada, ikasle erasotzailearengandik banantzeko aukera aztertu behar da, eta afekzio-babeseko sare bat eraiki horren inguruan. Hala eta guztiz ere, ongi balioetsi behar da biktima eta pertsona erasotzaileak edo ikusleak fisikoki banantzeko babes-neurri bat hartu behar den edo ez, ez dezan pentsarazi erasotzaileak bere helburua lortu duenik, horrek gehiago estigmatizatuko bailuke biktima.
- Autoestimua lantzea.
- Trebetasun sozialak lantzea: bere burua babesteko jokabideak eta asertibitatea; taldean lan egiteko trebetasunak, erasotzaile bihurtu gabe biktima izateari uzteko trebetasunak lantzea, *role playing*eko (egiazko egoerak antzeztea) egoerak lantzea.
- Jazarpen sexistako egoeretan, estrategiak eman behar dizkiogu, ez ditzan onartu rol sexista jakin batzuk, ez eta sexuen arteko berdintasunarekin bateragarri ez den ohiturarik edo sinesmenik ere.
- Beharrezko irizten bada, kanpoko zerbitzuetara igortzea (gizarte-zerbitzuak, osasunekoak edo biak), edo espezializatutako beste zerbitzu batzuetara (adib.: jazarpen sexista eta/edo sexu-jazarpena bada, udalerrietako berdintasun-sailak, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Emakunde, etab.). Edonola ere, adin txikiko ikasleak badira, haien gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi behar zaie.

### b) Ustez erasotzaile diren ikasleekin gauza daitezkeen jarduerak

- Berehala esku hartzea pertsona jazarleekin, eta garbi adieraztea ez dela erasorik onartuko inola ere.

- Banakako elkarrizketa antolatzea honakoetarako:
  - Arazoa oso larria dela ulertarazteko.
  - Indarkeriazko jokabideak identifikatzeko.
  - Jarreraren zergatia aztertzeke.
  - Eragindako kaltearen gainean gogoeta egiteko eta hori onartzeko.
  - Enpatia eta arrazoibide morala lantzeko.
  - Jarrera aldatzen hasteko eta kaltea konpontzeko.
  - Eragindako kalteak konpontzea eta konpentsatzea sustatzeko.
 Adierazteko jarduera negatiboak edo antisozialak ez direla onartzen eta ez direla zigortu gabe geratzeko.
- Trebetasun sozialak lantzeko programak abiaraztea.
- Nork bere agresibitatea kontrolatzeko programak sustatzea.
- Zuzenketa-neurri hezigarriak aplikatzea.
- Jazarpen sexistako edo sexualeko egoeretan, programa espezifiko bat abiarazi behar da, sinesmen, jokabide eta jarrera sexistak zuzentzeko; maskulinitate tradizionala, sinesmen eta aurreiritzi sexistak, genero-estereotipoak eta abar ezbaian jartzera zuzendutako hezkuntza-programak izango dira.

Zuzenketa-neurriak aplikatzerakoan, kontuan hartu behar da EAEko ikasleen eskubideei buruzko 201/2008 Dekretua. Horri dagokionez, kontuan hartu behar dira honako atal hauek:

**Lehen Hezkuntzan:**

Ikasleen adinari egokitzeari buruzko 29. artikulua 2. eta 3. atalak:

9. artikulua.- Ikasleen adinari egokitzea.

*2.– Lehen Hezkuntza Dekretu honetan ezarritako betebeharrak bat betetzen ez bada, irakasleek jokabide desegokia zuzendu beharko dute horretarako ezarri diren neurrietako bat berehala eta ahoz baliatuz. Neurri horiek aplikatu behar dira pertsonen edota objektuen balizko kalteak jaso ez ditzaten behin-behineko neurri ezarrien aurka egin gabe.*

*3. – Salbuespen gisa, ikaslearen jokabidea ikastetxeko bizikidetzarentzat larriki kaltegarria izan daitekeenean, eta jokabide hori ikaslearentzat edota hezkuntza komunitateko gainerako kideentzat arriskutsua bada, zuzendariak ohiko prozedura erabili eta Dekretu honetan jokabide horiek zuzentzeko ezarri diren neurriak aplikatu ahal izango ditu, betiere, Hezkuntzako Ikuskaritzari aurrez jakinarazpena igorri.*

**Bigarren Hezkuntzan:**

Ohiz kanpoko prozedura aplikatu beharko da, ikasleen eskubideei eta betebeharrari buruzko 201/2008 Dekretuaren 68.b artikuluan azaltzen den eran.

Dekretuaren IV. kapitulu 4. atalean arautzen da prozedura hori. Beren aldetik, kapitulu bereko 1. atalean arautzen dira xedapen orokorrak.

Jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak erabiltzeari dagokionez, kontuan hartu behar da Dekretuaren III. kapituluaren jasotakoa, bereziki, 43., 44., 45. eta 46. artikuluetan.

**c) Ikusleekin edo, hala badagokio, ikasgelako taldearekin gauza daitezkeen jarduerak**

- Tutoretza-plana: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako lantzen eta sustatzen dituen programak eta materialak abiarazteko erabakia hartzea modu koordinatuan.
- Berdinen arteko bizikidetzako indarkeriazko jokabideak esplizituki baztertzeko eta salatzeke aukera emango duten jarduerak gauzatzea:
  - Garbi adieraztea zer motatako jokabideak salatu behar diren.
  - Garbi adieraztea zer paper jokatzen duten ikusleek egoera horietan. Adieraztea bidegabekeria salatzea elkartasun-jokabidea dela, eta ez dela salatari izatearen berdina.
  - Jokabide horiek ez onartzeko jarrerak lantzea erantzun alternatiboak aztertuz, eztabaidatuz eta bilatuz.

– Lagun-taldeek ematen duten segurtasun faltsuari eta banden itxurazko erakargarritasunari buruz eztabaidatzea.

- Ikasleak inplikatzeko isolamendua eta biktimizazioa babesteko, prebenitzeko eta zuzentzeko esparru baten sorreran.
  - Berdinen arteko laguntzarako estrategiak lantzea.
  - Ikasle bitartekariak esku hartzea sustatzea.
  - Ikasle guztiak barneratzea taldean, eta trebetasun prosozialak lantzea lankidetzaren bidez.
- Laguntza eskatzen irakastea ikasleei, bai eta salataritzat joak izateko edo eurak ere biktima bihurtzeko beldurra gainditzeko ere.
- Jakinaraztea beldurrarazteko egoerak sala daitezkeela, eta ikastetxean badaudela horretarako bitartekoak, konfidentzialtasuna bermatzen dutenak (telefono laguna, iradokizunen postontzia, gatazkak ebazteko batzordea...).
- Soziogramak edo ikastetxeak egoki irizten dituen beste tresna batzuk erabiltzea taldeko barne-harremanei buruzko informazioa biltzeko, gutxi gorabeherakoa bada ere.
- Jazarpen sexistako egoeretan, lan espezifikoak egin behar dira sexuaren arabera aurreiritziak, estereotipoak eta rolak desagerrarazteko; emakumeekin eta gizonekin lotutako jokabidezko eredu soziokulturalen arabera eraikita egoten dira horiek. Helduek sexu-berdintasunaren esparruan jarraitu beharreko jarrera- eta jarduera-eredu egokiak azaldu eta sustatu behar dira.

Oharrak:

Kontu handiz gauzatu behar da taldeko lana. Krisialdian zehar taldean lan egiten bada, bereziki zaindu behar da jarduera egiazko egoerarekin ez erlazionatzea (umiliagarria izan daiteke ikasle erasotuentzat, eta erasotzailearen karisma eta botere-sentimendua areagotu dezake). Ez da inoiz ere pertsonalizatu behar. Kontuan hartu behar da modu desberdinetan interpreta daitezkeela jarduerak, eta jarduera bakoitzaren ondorioak aurreikusten saiatu behar gara. Emandako pauso bakoitza aztertu behar dugu.

Arreta berezia jarri behar da beti biktima ez nabarmentzeko taldearen aurrean eta arrisku-egoerak ez sortzeko. Batzuetan, ez da ikasgelan guztien aurrean landu behar jazarpen-egoera, biktimak berari buruz hitz egiten ari garela senti dezakeelako, eta lotsa edo beheramendua senti dezakeelako.

#### **d) Jarduerak familiekin**

- Kontu handiz prestatzea familiei egin beharreko jakinarazpenak, eta ongi zehaztea bilera bakoitzeko helburuak. Elkarrizketetan parte hartuko duten pertsonen kopurua murriztea. Bilerak ez bikoiztea. Arazoa seriozki lantzen ari garela ikusteak lasaitu egingo ditu familiak, eta konfiantza emango die.
- Familia bakoitzarekin bakarka lan egitea. Prozesuaren amaieran edo arrazoi sendoak direla eta soilik lan egin ahal izango dugu era berean familia batekin baino gehiagorekin. Liskarrak ekiditea.
- Azpimarratzea xede bakarra ez dela gatazka-egoera desagerraraztea, ikasleek esperientzia horretatik honako hauek ikastea ere nahi dugulako: jarrera-aldaketa, trebetasun sozialak...
- Jarrera ulerkorra erakustea familiei. Ez dugu erruduntasuna azpimarratu behar. Leuntasunez eta errespetuz iradoki behar ditugu aldaketak edo egin behar ditugu proposamenak. Garbi adierazi behar dugu haien seme-alaben ongizatea eta garapen pertsonala, soziala eta morala direla helburu nagusiak.
- Bilera guztietan akta jasotzea, eta akta horretan adieraztea bileraren xedea, parte-hartzaileak, ondorioak, proposamenak...
- Familiei beren seme-ari edo alabari buruzko informazioa ematea, eta inoiz ere ez ematea beste ikasle bati buruzko informaziorik.
- Ikastetxeak zer pauso eman dituen jakinaraztea.
- Jazarpen sexista eta/edo sexu-jazarpena badago, familiei jakinarazi behar zaie zer baliabide espezializatu dauden (udalerrietako berdintasun-sailak, gizarte-zerbitzuak, Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzarena, etab.).

#### e) Jarduerak irakasle-taldearekin

- Jarduera-irizpideak adostea eta bateratzea.
- Tutorearen lana erraztea.
- Fenomenoaren izaera eta neurria ebaluatzea galdetegiaren bidez, eta esku hartzeko estrategia zehatzak diseinatzea kasuaren arabera.

#### f) Irakasle-taldearen jarduerak

- Gogoraraztea hautematen duten eraso- edo jazarpen-egoera guztietan esku hartu behar dutela irakasleek, bai eta erasoari berehalako laguntza eta babesa eman ere, ikastetxean zein ikastetxetik kanpo.
- Jarrera irekia azaltzea ikasleek eska edo eman dezaketen informazioaren gainean, beren edo beste kideren baten egoerari dagokionez.
- Zaintza espezifiko eta sistematikoa. Arreta berezia jarri behar dugu erasoak pairatzen ari daitezkeen ikasleen jarrera-aldaketetan (umore-aldaketak, uzurtasuna, bakardadea, hezkuntza-errendimendua murriztea...).
- Bitartekoak sortzea ikasleek tutoreei, irakasleei edo eskola-komunitateko beste kide batzuei informazioa helarazteko:  
postontziak jartzea, laguntza-helbideen berri ematea, etab.
- Ikasleen inplikazioa sustatzea gatazken kudeaketan (ikasle laguntzaileen edo bitartekarien programak antolatzea).
- Jazarpen sexistako edo sexu-jazarpeneko egoeretan, irakasleei prestakuntza eman behar zaie hezkidetzaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioaren esparruan, eta materialak eta baliabideak helarazi behar zaizkie, sexuagatiko bereizkeriako egoerak, jazarpen sexista eta eraso sexualak hauteman ahal izateko, eta horiek ikasgelan lantzeko estrategiak abiarazteko.

**g) Ziberjazarpena, soilik edo berdinaren arteko tratu txarren esparruko beste eraso batzuekin batera, gertatzen bada**, beste jarduera batzuk ere gauza daitezke, hala nola, "Ikastetxeetan *ziberbullyingari* aurre egiteko jarduera-protokoloa"ren III. eta IV. kapituluetan jasotzen direnak.

Horrelakoetan, komenigarria da gai hori tutoretza-planean sartzeari, ikasleek uler dezaten informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak modu desegokian erabiltzeak kalteak eta ondorioak eragin ditzakeela, eta ikasleei jakinaraztea jarduera horietako batzuk delitu direla (beste edonoren nortasuna ordeztzea, mehatxatzea, etab.).

Egoeraren arabera, ikastetxeko zuzendaritzak salatu egin dezake bere instalazioetan gertatu bada, edo polizia-salaketa bat jartzera bidera ditzake familiak *ziberbullyinga* ikasleen etxeetatik edo beste leku batzuetatik gauzatu bada.

*Ziberbullyingari* aurre egiteko aipatutako jarduera-protokolo horren berri ere eman diezaieke ikastetxeak familiei.

Jazarpen sexistako eta/edo sexu-jazarpeneko egoeretan, gainera, neurri espezifikoak sartu behar lirateke tutoretza-planean, hezkidetzaren, genero-berdintasunaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren esparruan.

**h) Funtsezkoa da gauzatutako esku-hartzeen jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak ezartzea**, bai eta **prozesuaren arrakastaren adierazleak** ere, egoera behar bezala konpondu den erabakitzeko.

Hona hemen zenbait adibide:

- Prozesua amaitutzat joko da biktimaren eta pertsona erasotzailearen jarrera-aldaketa eta ongizatea bermatzen dituzten baldintzak sortzen direnean.
- Ebaluazio-irizpideen eta helburu hori lortu dela adierazten duten alderdien adibideak.
  - Ikasle biktimak eta horren familiak adieraztea tratu txarren esparruko egoera amaitu dela.
  - Erasotzaileak barkamena eskatzea benetan, ahoz edo idatziz, eta biktimak onartzea.
  - Erasotzaile ohiak eta biktima ohiak borondatezko baterako jarduerak edo lana gauzatzea, haien arteko harremana ona dela adieraziko baitu horrek.
  - Egiaztatzea ez direla berriz gertatzen mota horretako egoerak, kasuaren jarraipenaz arduratzen den taldeak horretarako ezarritako arrazoizko epean zehar.

Jarraipena ongi planifikatu behar da. Horretarako, prozedurak, datak eta arduradunak zehaztuko dira.

Egoera zuzendu dugula uste badugu ere, komeni da prebentziozko zainketarako aldi zuhur bat ezartzea.

i) Behin pausoa amaitu denean, komenigarria da **ikastetxeko AJA edo BA, bizikidetza-plana, tutore-ekintzarako plana, antolaketa-aldaketak edo beste mota batekoak eta abar berrikustea**. Horien xedea da ikastetxeko bizikidetza hobetzea, eta sor daitezkeen gatazkak prebenitzea eta kudeatzea, ikastetxeko berdinaren arteko tratu txarrei dagokienez batez ere.

Era berean, kasuaren, horren konponketaren eta ateratako ondorioen berri eman diezaiokegu bizikidetza-behatokiari, hori arduratzen baita ikastetxeko bizikidetza ebaluatzeaz. Nolanahi ere, kontuan izan behar dira datu pertsonalak babesteari eta pribatutasuna errespetatzeari buruz indarrean dauden mugak.



## **VII. ERANSKINA**

# **IKASTETXEETAN BERDINEN ARTEKO TRATU TXARRAK TRATATZEKO PREBENTZIO-NEURRIAK**

Hezkuntza-komunitate batean bizikidetza-programak edo -planak lantzeak asko laguntzen du ikasleen arteko tratu txarrei aurre hartzen. Egiaztatuta dago ikastetxeetan indarkeria prebenitzeko modu egokiena dela pertsona guztien eskubideetan eta betebeharretan oinarritzea hezkuntza-komunitateko harremanak, duintasunarekiko errespetuan eta jokabide prosozialak sustatzen dituzten irizpide hezigarri eta integratzaileetan, eta eztabaida erabiltzea gatazkei aurre egiteko. Elementu horiek dira programa horien eta bizikidetza-planen ardatz.

Horretarako, indarkeriaren kultura gainditzeko prozesuak landu behar dira ikastetxeetan, hori baita bide bakarra ikasleak sozializa daitezen, eta ikastetxeek gizarteari adierazi diezaizoten elkarrizketa, errespetua, ardura eta komunikazioa direla bizikidetzaren oinarri-oinarrizko elementuak.

Prebentzio-neurrien artean, honako hauek bereiz ditzakegu: orokorrak, ikastetxeko bizikidetza orokorra hobetzeko xedea dutenak; eta berdinen arteko tratu txarrekin eta jazarpenarekin lotutakoak, ikasgelako taldearekin edo banaka aplikatu ohi direnak, hezkuntza-komunitate osoan eragina izan badezakete ere.

### **1. Hezkuntza-komunitate osoaren sentsibilizazioa eta inplikazioa sustatzen duten antolaketa-neurriak**

Hezkuntzaren xedeetako bat da bizikidetza positibo bat sortzea ikastetxeetan, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, Hezkuntzakoak, 1. artikuluko c) eta k) paragrafoetan xedatzen duen eran. Paragrafo horietan, printzipio jakin batzuk jasotzen dira, gatazkak saihesteko eta horiek modu baketsuan konpontzeko hezkuntza sustatzen dutenak, bai eta bizitza pertsonaleko, familiarreko eta sozialeko esparru guztietan indarkeriarik ez erabiltzea ere.

Era beran, Lege Organiko horren hitzaurrean adierazten da hezkuntzaren xedeen artean azpimarratzekoak direla ikasleek beren nortasuna eta gaitasun afektiboak guztiz garatzea, oinarritzko eskubideekiko eta gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunarekiko errespetuan hezteak, aniztasun afektibo-sexuala onartzea, bai eta desberdintasunak kritikoki balioestea ere, jokabide sexistak gainditu ahal izateko. Hori guztia bat dator abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren edukiarekin, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurri buruzkoarenarekin.

Horri dagokionez, EAEn, aipatzekoa da 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunerakoa, eta, bereziki, horren III. titulua (Esku-hartzeko zenbait arlotan berdintasuna sustatzeko neurriak), III. kapitulua (Hezkuntza), I. atala (Unibertsitatez kanpoko hezkuntza).

Zehazki, 4/2005 Legearen 29. artikulua, beste batzuen artean, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko hezkuntza-xedea aipatzen du; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonen eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetza-ereduak ere.

Beste alde batetik, azpimarratzekoa da, hezkuntza-komunitatea hobetu nahi bada, funtsezkoa dela komunitateko kide guztiek aktiboki parte hartzea eta esku hartzea bizikidetza sustatzeko eta hobetzeko jarduerak diseinatzean, planifikatzean eta gauzatzean.

Ilido horretatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak neurri jakin batzuk sustatu ditu hezkuntza-komunitate osoaren sentsibilizazioa eta inplikazioa bultzatzeko; hala nola:

- Ikastetxean bizikidetzaren behatokia sortzea, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzearekin eta ordezkariarekin. 201/2008 Dekretuaren 5. artikuluan aipatzen da hori.
- Bizikidetza-plan bat lantzea. Hori ere aipatutako 201/2008 Dekretuaren 5. artikuluan arautzen da. Plan horretan nabarmen izango dira gatazkak modu baketsuan ebaztera eta adiskidetzera eta konponketa lortzera bideratutako prozedurak eta bizikidetzarako hezkuntza-konpromisoak hartzeko jarraibideak.
- Tutore-ekintzarako plana; laguntza-prozesu jarraitua eta sistematikoa izango da, hezkuntza-jardueran barneratutakoa. Irakasle guztiek tutoretza-lanetan parte hartzeko aukera emango duten antolaketa-neurriak bultzatuko dira; horretarako, banakako tutoretzak, taldekako tutoretzak eta abar esleituko dira.
- Hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartzea sustatzea AJA edo barne-araudia lantzerakoan; horrek barne hartuko du ikastetxeko araudia eta ikasleen eskubideak eta betebeharrak bermatzeko moduen araudia.

Era berean, bizikidetza positiboa lantzeko neurriak eta prozedurak abiaraz daitezke, hala nola:

- Ikastetxeko giroa hobetzeko neurri orokorrak aplikatzea; horretarako, sentsibilizazio-kanpainak egingo dira bizikidetzarekin eta aukera- eta eskubide-berdintasunarekin lotutako gaien inguruan, bai eta komunikazioko eta gatazketan bitartekari izateko programak ere. Azken horien bidez, gaitasun pertsonalak eta sozialak eskuratuko dituzte ikasleek, adibidez, asertibitatea, autoestimua, enpatia eta balio etiko-moraletan oinarritutako komunikazio-gaitasunak.
- Ikasle-batzordeak eratzea bizikidetza orokorra hobetzeko, balizko gatazkak ebazteko eta horien konponbidea bilatzen laguntzeko: bitartekaritza-taldeak, atsedeneko laguntzaileak, ikasle aholkulariak, etab.
- Ikastetxeko ekosistema hobetzea, aisialdirako erakargarriago diren guneak sortzea, jolastokiak hobetzea eta ikasleek zuzendutako jolas-taldeak antolatzea; horrela, ikastetxeko kide izatearen sentimendua areagotuko da, bai eta segurtasun-sentimendua eta elkar onartzekoa ere.
- Hezkuntza-komunitate osoarentzako topaketak, hitzaldiak eta lantegiak sustatzea, bizikidetza positibo bat eraikitzeko, eta, ondorioz, norberaren ongizatea eta irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak hobetzeko: guraso-elkarteen bilerak, tutoretzakoak, gurasoen eskolak, ordezkarien bilerak, batzorde mistoak, ikastetxeko adituen batzordeak, etab.
- Hezkuntza-komunitateko sektore guztiak inplikatzea, eta, bereziki, familiak, ikastetxeko bizikidetza hobetzeko egituretan eta neurrietan.
- Gurasoen taldeak antolatzea: arazoa hobeki ezagutzeko eta horren inguruan zer egin erabakitzeko bilerak, hainbat kolektibori zuzendutako gaiei buruzko gogoeta.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko prestakuntza-programetan parte hartzea (ikastetxeko prestakuntza, Garatu ikastaroak eta Berritzeguneetako ikastaroak, lantegiak eta mintegiak), bai eta beste prestakuntza-programa batzuetan ere.
- Hezkuntza-komunitate osoak ikasleen eskubideei eta betebeharrari buruzko 201/2008 Dekretua ezagutzea erraztea eta sustatzea.
- Aniztasunaren balio positiboa errespetatzearekin eta onartzearekin lotutako gaiak sartzeko tutoretza-ekintzako planean.
- 
- Pertsonen garapen integrarean oinarritutako hezkuntza-eredu bat lortzera bideratutako neurriak sustatzea, sexuaren araberako estereotipoak eta rola alde batera utzita.

Berdinen arteko tratu txarrekin lotutako egoerak zuzenean lantzen dituzten beste neurri batzuk ere aplika daitezke:

- Tratu txarren esparruko egoera zailetan irakasleen ekintza babestuko eta indartuko duten antolaketa- eta zuzendaritza-egiturak sortzea.
- Tratu txarren esparruko egoerak salatze bideak jartzea, konfidentzialtasuna bermatuko dutenak: laguntza-postontzia, salaketen eta kexen taula, gutun anonimoak, laguntzarako e-mailak, ikastetxeko web-orria...
- Hezkuntza-komunitate osoa eta, bereziki, familiak, bultzatzea laguntzarako sare sozialetan parte hartzera, komunitate-baliabideak erabili ahal izateko ikastetxeetan indarkeria prebenitzeko eta ekiditeko, berdinen arteko tratu txarrei dagokienez batez ere.
- Tratu txarrei eta horien prebentzioari buruzko orientabidea helaraztea irakasleei, ikasleei eta familieei.
- Zenbait alderdi sartzeko tutoretza-ekintzako planean *bullying*-kasuak hautemateko, eta ustez horrelako kasu bat pairatzen ari bagara, edo beste pertsona bat horrelako egoera bat pairatzen ari dela badakigu, nola jardun jakiteko.

Jazarpen sexista eta/edo sexu-jazarpena espezifikoki lantzen duten neurriak.

- Hezkidetzaren esparruko ekimenak sustatzea ikastetxean eta ikasgelan, genero-indarkeriaren prebentzioa lantzen dutenak espezifikoki; beste batzuen artean, trebetasun sozialak eta norbanakoaren garapena sustatzea, estereotipo eta aurreiritzi sexistak desagerraraztea, berdintasunean bizitzea eta gatazkak modu baketsuan eta elkarriketaren bidez konpontzea xede dutenak.
- Emakumeentzako eta gizonentzako nortasun-ereduak lantzea berdintasunaren ikuspegitik eta genero-estereotipoak eta -rolak alde batera utzita esparru guztietan: ikasketa-/lanbide-aukerak ugaritzeari dagokienez, eguneroko bizitzako testuinguru guztietako zaintzaren erantzukizunkidetasunari eta etikari dagokienez, harreman afektibo-sexualei dagokienez.
- Ikasleek hezkidetzaren sustatzen duten kanpainetan, programetan eta proiektuetan parte hartzea sustatzea (Nahiko programa; azaroaren 25a –emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko nazioarteko eguna–; martxoaren 8a –emakumeen nazioarteko eguna–; gazteei zuzendutako erakunde-kanpainak, hala nola, Beldur Barik; eta arlo horretan espezializatutako blogak, hala nola, [www.geu.biok.net](http://www.geu.biok.net), [www.beldurbarik.com](http://www.beldurbarik.com)).
- Hezkuntza-jardueren eta ikastetxeko antolaketaaren diagnostia egitea genero-ikuspegia kontuan hartuta, bereizkeria-egoera posibleak eta estereotipo sexistak hautematea eta emaitzak ikastetxean zabaltzea. Diagnostian oinarrituta, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta hezkidetzaren sustatzeko planak lantzea.
- Klaustroari eta eskola-kontseiluari irizpideak proposatzea hezkuntza-proiektua eta antolaketa- eta funtzionamendu-arauak lantzerakoan eta/edo berrikusterakoan. Zeharkako genero-ikuspegia sartu behar da horietan, berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzeko curriculumaren plangintza egiterakoan, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan, jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan eta ikasleen jolas-orduetan.
- Genero-ikuspegia sartu behar da ikastetxeko plangintza gauzatzeko eta programazio didaktikoak lantzeko tresnetan, ikastetxeko bizikidetzaren planean, tutoretza-planean, orientazio akademikoko edo profesionaleko planean edo ikastetxean gauzatuko diren orientazio-jardueretan, aniztasunari arreta emateko ikastetxeko planean, ikastetxeko prestakuntza-planean eta ikastetxean gauzatuko diren gainerako planetan, programetan eta proiektuetan, beharrezko irizten bada.
- Irakasleen prestakuntza sustatzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren, hezkidetzaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioaren esparruko prestakuntza-ekintzen bidez.

- Ikasleen familientzako eta/edo legezko ordezkarietzako prestakuntza sustatzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioaren esparruan.
- Ikastetxean protokolo bat lantzea, modu partizipatiboan, jazarpen sexistako eta/edo sexu-jazarpeneko egoerak hautemateko, eta/edo horiei aurre egiteko dekalogo etiko bat lantzea.
- Eskola-kontseiluan arduradun bat izendatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra eta genero-indarkeriaren prebentzioa sustatzeko hezkuntza-neurriak bultzatzeko (LOEren 126.2. artikulua).

## **2. Ikasgelako hezkuntza-neurriak tratatu txarrak banaka prebenitzeko eta tratatzeko**

Jarraian azaltzen ditugun hezkuntza-neurriek zehaztu egiten dituzte ikastetxeko antolaketa orokorrarekin lotutakoak: urteko bizikidetza-plana, tutoretza-ekintzarako plana... Ikasgelan gauzatzen dira batez ere, banakako tutoretzaren bidez, eta horien xedea da pertsona kontzientek, kritikoak, arduratsuak eta konprometituek sortzea bidezko eta elkartasunezko harreman pertsonalak eta sozialak eraikitzeari dagokionez:

- Banakako eta taldekako tutoretzak sustatzea, jokabide prosozialak eta bizikidetza-balioak sustatzeko espazio egokiak baitira. Horrela, ikasle guztiak hobeki barneratuko dira beren erreferentziazko taldean, eta taldeko giroa eta kohesioa hobetuko dira gainera.
- Harreman zuzena mantentzea ikasleekin banakako tutoretzen bidez, gatazka bat dagoela uste dugunean bereziki.
- Ikasleen arteko balizko tratatu txarrak hautemateko erabiltzea tutoretza-saioak eta ebaluazio-batzordeak.
- Tutoretza-ekintzaren bidez, harremanetan jartzea aldizka familiekin, informazioa trukatzeko eta lankidetzaren bermatzeko.
- Egoeraren bat tratatu txar bihurtu daitekeela uste badugu, ikastetxeko orientatzaileari edo aholkulariari jakinaraztea, zantzuak azter ditzan eta irakasle-taldeari aholkuak eman diezazkion gauzatu beharreko esku-hartzearen gainean.
- Irakasle guztiek hurbileko harremana izatea ikasleekin, eta horiek entzuteko prest egotea.
- Garbi adieraztea ez dela inola ere onartuko berdinen arteko taldean ager daitekeen indarkeriazko jokabiderik.
- Ikasgelako oinarrizko bizikidetza-arauak lantzea ikasleekin batera, guztiek onar ditzaten eta horiek betetzeko erantzukizuna dutela senti dezaten.
- Trebetasun sozialak eta emozioak kudeatzeko trebetasunak lantzea taldean, ikasleak gai izan daitezten erantzun egokiak emateko zenbait testuingurutan (pribatuan, etxean, publikoan, eta abarretan).
- Pertsonen arteko berdintasun-harremanetan hezteak, nor bere burua eta gainerako pertsonak onartzean eta balioestean eta elkar balioestean eta errespetatzean oinarritutakoak.
- Gatazkek elkarrizketaren bidez eraldatzeko eta ebazteko estrategiak abiaraztea modu sistematikoa ikasgeletan (indarkeriarik gabeko metodoak). Autokontrolerako, enpatiarako eta frustrazioa gainditzeko teknikak lantzea.

- Ikasleei erraztasunak ematea irakasleekin komunikatu ahal izateko; "isiltasunaren lege" delako hori hautsi behar da, kalte handia eragiten baitio pertsona erasotuari, bai eta jazarpenaren isilpeko lekuko direnen kontzientziari ere.

Arartekoaren txosten berezian, ikastetxeetako bizikidetzari eta gatazkei buruzkoan (2006), 20 gomendio jasotzen dira ikastetxeetako eta ikasgeletako bizikidetzak hobetzeko. Zenbait jarduera-esparrutakoak dira, eta horietako asko dagoeneko aipatu ditugu aurreko ataletan. Honako hauek azpimarratuko ditugu:

1. Ikastetxe guztietako lehentasunezko xedeen artean sartzea bizikidetzak hobetzea eta tratu txar guztiak gaitzestea.
2. Ikasleen inplikazioa sustatzea gatazka jakin batzuk ebazterakoan.
3. Banakako tutoretzak zabaltzea.
4. Sistematikoki lantzea trebetasun prosozialak taldeko tutoretzetan.
5. Antolaketa-neurrien bidez, talde-ikasgela bakoitzean esku hartzen duten irakasleen kopurua murriztea, eta egonkortasuna ematea tutoretzei.
6. Hezkuntza-behaketa eta -ikuskatzea bermatzea irakastorduetatik eta ikasgeletatik kanpo.
7. Bizikidetzak-batzordeen eginkizunak eta papera areagotzea. Bermatzea hezkuntza-komunitateko sektore guztiek parte hartuko dutela batzorde horietan.
8. Curriculuma eta metodologia egokitzea eta erabiltzea bizikidetzak-ikaskuntzako oinarrizko elementu gisa.
9. Ikasleen eta familien parte-hartzea handiagotzea bizikidetzak-arauak lantzerakoan, aplikatzerakoan eta berrikusterakoan.
10. Ikastetxeetako disrupzioari edo diziplina ezari buruz.
11. Informazioa zaintzea, familiak prestatzeko jarduerak sustatzea, eta familiaren eta ikastetxearen arteko lankidetzak sendotzea.

## VIII. ERANSKINA BIBLIOGRAFIA

- ALLAN L. BEANE (2006): *BULLINYG Aulas libres de acoso*. Bartzelona GRAÓ.
- ARARTEKO. (2006): *Bizikidetza eta gatazkak ikastexeetan*. EAEko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen egoerari buruzko Arartekoaren txostena.
- AVILÉS MARTÍNEZ, J.M. (2006) *Bullying: el maltrato entre iguales. Agresores, víctimas y testigos en la escuela*. Salamanca, Amarú Ediciones.
- AVILES MARTÍNEZ, J.M. (2002): *Intimidación y maltrato entre el alumnado*. STEE-EILAS.
- AVILES MARTINEZ, J.M. (2001): *La intimidación y el maltrato en los Centros escolares*. Lan Osasuna 2, 13-24. Bilbao STEE-EILAS.
- CAURCEL CARA, M.J. (2009). *Estudio evolutivo del maltrato entre iguales desde la percepción y el razonamiento socioemocional de los implicados (Doktorego-tesia)*. Departamento de Psicología Evolutiva y de la Educación. Facultad de Ciencias de la Educación. Universidad de Granada.
- CEREZO, F. (1997): *Conductas agresivas en edad escolar*. Madril. Pirámide.
- CEREZO, F. (2002): *La violencia en las aulas*. Madril. Ed. Pirámide.
- DEFENSOR DEL PUEBLO (2006): *Informe Violencia Escolar. El maltrato entre iguales en la Educación Secundaria Obligatoria 1999/2006 (Azterlan berria eta 2000ko txostenaren eguneratzea)*. Bertsio elektronikoa: [www.defensordelpueblo.es](http://www.defensordelpueblo.es).
- DÍAZ-AGUADO, M.J. –Zuzendaritza orokorra- (2010): *Estudio estatal sobre la convivencia escolar en la Educación Secundaria Obligatoria*. Definición de indicadores y estudio desde una perspectiva de género. Bertsio elektronikoa: <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/detalle.action?cod=13567>
- DÍAZ-AGUADO, M.J. - Zuzendaritza orokorra - (2008): *Estudio estatal sobre la convivencia escolar en la Educación Secundaria Obligatoria. Avance de resultados*. (2008).
- DÍAZ-AGUADO, M.J. (2006): *Del acoso escolar a la cooperación en las aulas*, Madril, Pearson.
- DÍAZ-AGUADO, M.J. (2005) *La violencia entre iguales en la adolescencia y su prevención desde la escuela*. *Psicothema* 2005. 17. Alea, 4. zk.a.
- DÍAZ-AGUADO, M.J. (2005). *Por qué se produce la violencia escolar y cómo prevenirla* (2005). Revista iberoamericana de educación, 37. zk.a. (2005). Bertsio elektronikoa <http://www.rieoei.org/rie37a01.htm>
- DIAZ-AGUADO, M. J. (2004): *Prevención de la violencia y lucha contra la exclusión desde la adolescencia, La violencia entre iguales en la escuela y en el ocio, Programa de intervención y estudio experimental*, 2. zk.a., Injuve.
- ESPINOSA, M.A., OCHAITA E. y ORTEGA, I.: *“Manual formativo sobre prevención de la no violencia entre niños, niñas y adolescentes.”* I. eta II. liburukiak- Haurtzaroaren inguruko antolakuntzen plataforma. Madril 2003. [www.plataformadeinfancia.org](http://www.plataformadeinfancia.org) (EBko DAPHNE programaren esparruan prestatutako materialak)
- CCOO-KO IRAKASKUNTZA FEDERAZIOA (2001): *Los problemas de la convivencia escolar: un enfoque práctico*. Koordinatzailea: J. Esperanza.
- FERNANDEZ, I. (1998): *Prevención de la violencia y resolución de conflictos. El clima escolar como factor de calidad*.
- FERNANDEZ, I. (2001): *Guía para la convivencia en el aula*. Bartzelona, Cisspraxis.
- FISCALÍA GENERAL DEL ESTADO. *Instrucción 10/2005 de la Fiscalía General del Estado sobre el tratamiento del acoso escolar desde el sistema de justicia juvenil*. Bertsio elektronikoa: <https://www.fundaciondiagrama.es/investigacion-y-publicaciones/legislacion/circulares-ficalia-general-estado>

GARAIGORDOBIL, M., (2005): *4-12 urte bitarteko haurren garapenerako kooperazio eta sormen jolasak*, Bilbao, Ibaizabal.

HARRIS S., PETRIE G. (2006): *Acoso escolar en la escuela: los agresores, las víctimas y los espectadores*. Barcelona. Paidós.

ISEI-IVEI: Berdinen arteko tratatu txarrak; txostenak. Bertsio elektronikoak:

<http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/bullying2009/Bullying2009Txostena.pdf>

[http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/MALTRATO\\_EUSKERA.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/MALTRATO_EUSKERA.pdf)

<http://www.isei-ivei.net/cast/pub/bullyingprimaria1.pdf>

<http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/Bullying.ppt>

JARES, X. R. (2006): *Pedagogía de la convivencia*. Bartzelona, Graó.

LÓPEZ, F. y otras, (2006): *El bienestar personal y social y la prevención del malestar y la violencia*, Madril, Pirámide.

MONTAÑES SÁNCHEZ, M., BARTOLOMÉ GUTIÉRREZ, R. y MONTAÑES RODRÍGUEZ, J.: "El problema del maltrato y el acoso entre iguales en las aulas", en *ENSAYOS, Revista de la Facultad de Educación de Albacete*, 24. zk.a., 2009. (Bertsio elektronikoa: <http://www.uclm.es/ab/educacion/ensayos>).

MORENO, E. (2008): *Análisis de la violencia hacia las niñas en la escuela primaria*. Universidad de Huelva. Ministerio de Igualdad.

OLWEUS D. (1998): *Conductas de acoso y amenaza entre escolares*. Madril. Morata.

O'MOORE, M. (2004): *Dealing with Bullying in Schools*, London, PCP.

ORTEGA, R (1998): *La violencia escolar. ¿Qué es? Y ¿Cómo abordarla? Programa Educativo de Prevención de Maltrato entre compañeros y compañeras*. Junta de Andalucía.

ORTEGA R. y DEL REY R. (2003): *La violencia escolar: estrategias de prevención*. Bartzelona. Graó.

ORTEGA R. y DEL REY R. (2004): *Construir la convivencia*. Bartzelona, Edebé.

PIKAS, A. (1989): The common concern method for the treatment of mobbing. En Roland, E. eta Munthe, E (Eds), *Bullying: An international perspectiva*. 8 pp. 91-105). London . David Fulton.

RODRIGUEZ, NORA (2006): *Stop Bullying*. RBA.

RODRIGUEZ P. (2006): *Acoso escolar. Desde el mal llamado bullying hasta el acoso al profesorado. (Especial análisis de la reparación del daño)* Bartzelona, Atelier.

SALAS, B, y otras (2005): *Bizitzarako gaitasunak eta balioak, Bizikidetzeta eta tutoretza, Personaren garapen osorako hezkidetzako trebakuntza-eredua, Lehen hezkuntza/DBH, Pentacidad / Eusko Jaurlaritzan- Gobierno Vasco*.

SEGURA, M, (2005): *Enseñar a convivir no es tan difícil*, Bilbo, Descleé.

SEGURA, M, y ARCAS, M, (4ª - 2006): *Relacionarnos bien*, Madril, Nancea.

SERRANO, Á. e IBORRA, I. *Violencia entre compañeros en la escuela*. Valencia: Centro Reina Sofía para el Estudio de la Violencia, 2005.

SHARPES Y SMITH. P.K.(1994): *School Bullying: Insights and perspectives*. London. Routledge.

SUCKLING, A y TEMPLE, C (2006): *Herramientas contra el acoso escolar. Un enfoque integral*. Madril. MORATA + MEC.

TORREGO, J.C. (coord) (2006): *Modelo integrado de mejora de la convivencia*, Bartzelona, Graó.

ZAITEGI, N. eta beste batzuk (2005): *Dossier herramientas: Propuesta práctica de reflexión grupal en torno a las Habilidades para la Vida*, en OGE, nº 5, 2005eko iraila, Bartzelona, Praxis.

ZAITEGI, N. eta beste batzuk (2006): *Dossier herramientas: Guía para la elaboración del Plan de Convivencia Anual (PCA) I eta II*, OGE, 4. zk.a., 2006ko uztaila eta 5. zk.a., 2006ko iraila, Bartzelona, Praxis.